

uk

86. zenbakia / 2005 irailak 18



# Non zer

- 4. GU GEU.
- 5. IRUDIA. Txirindularia Bizkaiko Zubian. Mikel Martinez.
- 6. PLAZA. Leihatila, Maddi Albizu. Bendejerak. Photoshop.
- 7. LEHEN ETA ORAIN. Leioako San Bartolome basiliza.
- 8. TALAIA. Beste begirada bat eskualdeari.
- 9. ERRETRATUA. Arantxa Yurre, Asier Mentxaka.
- 10. HERRIZ HERRI. Getxo 10. Leioa 14. Erandio 16. Sopelana 18. Berango 20. Gainerako herriak 21.
- 23. AGENDA.

## SAKONEAN

- 24. ALBUMA. Getxo Folk jaialdia. Asier Mentxaka.
- 26. ERREPORTAJEA. Ibaizabaleko ontzien etorkizuna, Unai Brea.
- 28. ARGAZKIA. Jostailuak (2003), Juan Luis Markaidea.
- 30. BERBETAN. Andoni Egaña, U. B.
- 34. FOTOGRAFIA. Paella eguna, A. M.

## KULTURA ETA AISIA

- 42. ZINEMA. Oskar Fernandez zutabea. Koldo Serraen lehenengo luzea.
- 43. MUSIKA. Lunfado taldea. Diskoen erreseinak.
- 44. LIBURUAK. On Kixote Mantxakoa. Liburuaren erreseinak.
- 45. KIROLA. Fadura Igeriketa Taldea.

## EUSKARAZ

- 46. ELKARRIZKETA. Carlos Beltran, Unai Brea.
- 47. AKABUKO PUNTE. Gure euskara, Xabi Bilbaoren eskutik.

## AMAITZEKO

- 48. JAN ETA EDAN. Gaizka Escuderoren errezeta eta Itsaso Aranaren ardaoaren gaineko lezioa. Non jan? Esaterako, Urduizko Txosna jatekxan.
- 50. HOROSKOPOA.
- 51. KOMIKIA. Dogan Gozel.
- 52. DENBORAPASA ETA LEHIAKETA.
- 53. FLASH BACK. Algortako arraunlariak, 1919. Bittor Egurrola
- 54. AITORMENAK. Kaitin Allende, Esti Ezkerra.

Azaleko argazkia: Grafita Algortan (Asier Mentxaka)




30 Andoni Egaña



24 Getxo Folk



34 Paellak



9 Arantxa Yurre



26 Ibaizabalgo gasolinoak



16 Joxe Legarreta



# Badago euskara ikasteko modu seguruagoa. Euskaltegia.

GETXOKO EUSKALTEGIAK / EUSKALTEGIS DE GETXO

GETXOKO UDAL EUSKALTEGIA  
Lope de Vega kalea 12, 3. A  
☎: 94 464 62 99 - ✉: euskaltegi@getxo.net

LAUAXETA EUSKALTEGIA  
Iparbide kalea 6  
☎: 94 430 47 34 - ✉: lauaxeta@zeknet.net

JOSE ANTONIO AGIRRE EUSKALTEGIA  
Algortako Etorbidea 104  
☎: 94 460 66 71 - ✉: j.a.agirre@euskalnet.net



**Getxo**  
UDALA • AYUNTAMIENTO

Euskara Zerbitzua

**HABE**



Algortako Etorbidea 104 zbk  
48990 Algorta - GETXO  
TF: 94 460 66 71

## Udazkenean ere euskarari heldu!

# euskara

- Maila guztiak ordutegi desberdinetan
- EGA larunbat goizetan
- Plentzian ere bagaude!

e-mail: [j.a.agirre@euskalnet.net](mailto:j.a.agirre@euskalnet.net)

## UK URIBE KOSTAKO ALDIZKARIA

ARGITARATZAILA: Boluntzarreta

HELBIBIDEA: Amezi 6, 4. solairua, 5. bulegoa 4891 GETXO  
e-mail: uk@aldizkaria.biz / Posta Kubxa 171  
Tel: 94 491 13 37

ZUZENDARIA: Jokin Aspuru

ERREDAKZIOA: Irantzu Sagaminaga, Aritz Bregel, Amaia Ariaga

FOTOGRAFIA: Asier Menbaca

TESTUEN ORRAZKETA: Jon Etxebarria

KOLABORATZAILAK: Unai Brea, Bittor Egurrola, Xabier Bilbao, Oskar Fernández, Unai Amezaga, Esti Ezkerra, Itsaso Arana, Gaizka Escudero, Berbots Erandion Euskaraz eta Bizarra Lepoan Euskara Elkarteak.

MARRAZKILARIAK: Dogan Gozel, Gorka Vázquez

PUBLIZITATEA eta SUSTAPENA: Zuriñe Martínez (94 491 13 37)

KANPO HARREMANAK: Gorka Orueta

FILMAZIOA: Argia / INPRIMATEGIA: GESTINGRAF

LEGE GORDAILUA: BI-1878-00

ISSN: 1576-6799

Osorik edo zatiz, makinaz zein informatikaz kopiatzea, baimen barik, erabat galarazirik dago

© Boluntzarreta

Aldizkari hau Euskal Herriko herri aldizkari eta euskara elkarten Topaguneko partaidea da

**Aldizkari honek Bizarra Lepoan Euskara Elkartearen dirulaguntza jasotzen du**  
Itxasgane Etxea / Karitatea 1  
94 491 43 57 / 48990 Algorta

**Aldizkari honek Getxoko Udalaren dirulaguntza jaso du**

**Leioako Udala**  
Aldizkari honek Leioako Udaleko Euskara Zerbitzuko dirulaguntza jaso du

**Erandioko Udala**  
Aldizkari honek Erandioko Udalaren dirulaguntza jasotzen du

**Golioko Udalaren dirulaguntza jasotzen du**

**Bizkaiko Foru Aldundia**  
Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren dirulaguntza jaso du

**EROSKI FUNDAZIOA**  
Aldizkari honek Eroski Fundazioaren Kultura Salaren dirulaguntza jaso du

**uk**  
94 491 13 37  
uk@aldizkaria.biz

gugeu

# Hamar urte

**Liburu sakratuak** “eguneroko ogia zure izerdiagaz irabaziko duzula” agintzen du, Jainkoak berak ere akorduan ez dauzkan garaietatik. Oraindino bizimodua aurrera ateratzeko beste modurik asmatu ez dugunez, UK-ko behargin gaixook -opor osteko sindromeak jota- zintzo-zintzo atzera etorri gara gure ohiko zereginetara. Zer esanik ez, hilkor eta irakurle gehienek moduan.

Oporrek bezala, denborak ihes egiten digu, konturatu orduko joan egin zaigu. Eta bulegoan gogoeta horretan genbiltzala, aurten aldizkari honek hamar urte bete dituela konturatu gara. Hau da, orain dela hamar urte -1995ean- hasi ginela euskarazko herri aldizkari hau argitaratzen. Hastapenetan Bizarra Lepoan izenagaz Getxorako baino ez, ondoren, UK markapean Uribe Kosta osorako. Urteurren borobil hau ospatzeko ez dugu bolandera ikusgarrikerik zeruratuko. Egiten dakiguna eginez ospatzea bururatu zaigu eta horregatik abenduan ale berezi bat kaleratuko dugu.


“Dabilen harriari ez zaio goroldiorik lotzen” dio Axularren esakera ezagunak. Hamar urte “ibiltzen”, mugimenduan, eman ditugu aldizkari hau etenik gabe plazaratuz. Eta horretan segiduko dugu, ulea urdintzen hasi bazaigu ere, behintzat goroldioa lotu ez dakigun! <sup>4</sup>

UK-ko lantaldea

## irakurleak


**Zuon iritziak, eskaerak, proposamenak... garrantzitsuak dira guretzat. Harremanetarako: uk@aldizkaria.biz • Tel.: 94 491 13 37**

## matematika aplikatua



Goizero irakurri > **berria**

[irudia]



**A ze tomate pare!** / Bareño-Torre baserriko ortuan tomate eder bi jaio dira, ederrak eta erraldoiak: txikienak ia kilo eta erdiko pisua dauka eta besteak kilo eta 700 gramo. Bihurriren batek tomate transgenikoak edota ez dakit zein laborategitan hazitakoak direla pentsatuko luke, baina Iñaki Ugarteren tomateak Larrabasterrako lur emankorrak eta itsas haizeak hazi dituzte hain polito. Eskerrak Lemoizko nuklearrak sekula funtzionatu ez zuela, bestela arrazoi erraza aurkituko luke baten batek horretan. Gu tomate horiekaz batera jateko zer presta daitekeen pentsatzen gabilta: entsalada, makailoa... Ummm! <sup>m</sup> / Argazkia: **Aitor Galbarriartu**

**Leihatila**

&gt; Maddi Albizu

**Benetako etsaia**

Mugimendu antimilitaristaren aspaldiko leloa da “benetako etsaia pobrezia da” dioena. Joan den hilean Mexikoko Golkoan gertatutako hondamendiari buruz asko eta asko idatzi da egunotan, baina niri atentzioa gehien eman didaten berrietako bat Estatu Batuek hondamendietarako dituzten aurrekontuen zati bat Irakeko inbasioa gauzatzera bideratu dutela zioena izan da. “Alegiazko etsaia” eta “benetako etsaia” aurrez aurre ikusi ditut. “Alegiazko etsaia” ez da begibistakoa. “Izua” izena jarri diote. “Benetako etsaiak”, ordea, izen asko ditu: “Katrina” Estatu Batuetako Hegoaldean orain, “Asiako Tsunami” iazko abenduan eta, jakina, “pobrezia” munduko hainbat bazterretan, egunero. Etsai hau, bestea ez bezala, ikusi egiten da, erreala da. Ejerzitoak eta armagintza dira, dudarik gabe, gizateriaren etsairik handienetakoak. 4

**IRITZIA**

**Aspalditik saltzen dute bendejerek euren jeneroa Areetako Eskoletako plazan. Ogibide hori galzorian dago orain. Gai honen gaineko Javi Arostegi areetarraren gogoeta duzue azpikoa.**

**Bendejerek desagertzeko zorian**

**Zoritzarrez** eta udal agintariek ez badute erabaki zoro hau zuzentzen, orain dala urte asko ohitura den eta Areetan zapatu goizetan egiten den bendejarenak egingo du. 70. hamarkadan inguruko baserrietako etxeoandreak euren jeneroa saltzen Eskoletako plazara (Areeta) etortzen hasi zirenean sortu zen herriari hain lotua dagoen bendejeren azoka. Ondoren, 1990ean, Getxoko udalak oraindik horretara joaten zirenei baimenak eman zizkien eta ekintza hori erregulatu zuen. Urteek aurrera egin ahala bendejeren beharrak jarraitu du eta batzuk hil diren arren, hurrengo belaunaldiak hartu du lekukoa. Baina orain dela gutxi Udalak esan die bere garaian baimendutakoek, gaur egun 70 urtetik gorakoak denak, baino ez dutela izango irailaren batetik aurrera plazara joateko eskubidea, eta inola ere ez euren ondorengoek. Eta hau guztia isun itzelaren mehatxupean. Ondorioz, postu batzuk hutsik lotuko dira eta bistan dagoenez beste postuei ez zaie asko gelditzen. Horren guztiaren arrazoiak? Ekintza hori kalean saltzea dela, eta beraz, galarazita udalerrian.

Gauzak horretara eta “bendeja” horrela definitzea zuzena ez dela jakinda, bendejaren gainean egingo dut berba. Lehenengo eta behin, baratzeko sasoiako produktuak horrela saltzeak baserri askoren biziraupena ahalbidetzen du. Gainera, horri esker modu tradizionalan hazitako kalitatezko produktuak eskura ditzakegu. Eta Areetako bendejarena merkataritza harreman soila baino haratago doa, izan ere, nekazal munduko balore batzuen transmisioa ahalbidetzen du, gaur egun gure hirietatik ia desagertuta daudenak eta gure kulturaren oso zati garrantzitsuak direnak.

**«Areetako bendejarena merkataritza harreman soila baino haratago doa»**

Bigarrenetik, badago garantzia handiko beste kontu bat eta berak bakarrik bendejaren jarraipena ez eze sustapena ere justifikatu luke: euskararen presentzia kalean. Plazara gerturatzen diren auzokide asko ez gara erostera bakarrik joaten, euskaraz berba egitera ere joaten gara, aukera ona delako, udalerrian eta bereziki Areetan gaxa da-eta. Instituzioek euskaraz presentzia handiagoa eduki dezan diru inbertsio handiak egiten dituzte (EBPN, Euskaraz bizi, Egizu...) eta hartutako erabaki honek justu aurkakoa ekarriko du. Euskaraz, kalean eta orain dela hamarkada batzuk egiten den eta gainera diru gasturik ez daukan aktibitatearekin amaitu gura dute, ez al da inkoherentea? Harrigarria!

Benetan, hartutako erabakia berriz aztertu behar delakoan nago, eta bendeja saltzea uzteaz gain sustatu eta bultzatu egin behar dela uste dut, lehenago aipatu dudana bezala. Aurkakoa auzoan hain sustraituta dagoen usadioarekiko sentsibiltate falta handia, irudimen gabezia eta itxukeria larria adieraziko luke. Hori bai, urte batzuk barru kaleko euskal errepresentazio herrikoari, gure sirgera sufrituen homenaldiri, geureak ere badiren bendejeren pasadizoren bat gehituko genioke agian.

Javier Arostegi  
(Berantzagi Dantza Taldea)

*\*Erredakzioan izulia eta laburtua*

[lehen]



KULTUR-LEIOA



ASIER MENTAKA

[orain]

**Iraganez doa denbora\* beti / LEIOAKO SAN BARTOLOME**

\* **Denbora:** gauzak gertatzen eta izakiak aldatzen diren bitarte mugagabea.

**photoshop > Algortako Arantzazu?**

Irudiak eta manipulazioa: A. M.

## elkartasuna > ume saharaiak gurean

**Ohikoa den legez** ume saharaiak gurean izan dira udapasan. Jakingo duzueenez errefuxiatuen kanpamenduetan bizi dira aspalditik saharaiak oso baldintza latzetan. Aurten gure eskualdera 35 haur ekarri dituzte Erandio, Leioa, Getxo eta Sopelako elkartasun taldeek udalen laguntzaz. Makina bat irteera egin dituzte haur hauen egonaldia atsegina egiteko. Esaterako, Cabarcenora joan dira, Arrasaten Euskal Herrira etorri diren haur saharai guztiak batu dituen jaian egon dira... Jaietan ere parte hartu dute, izan ere, Algortako eta Erandioko jaietan jaima bana jarri dute. Itzela da haur hauek udan hartzen dituzten familien elkartasuna. Zorionak eta eskerrik asko. <sup>m</sup>



Ume saharaiak Leioan egin zitzaizkien harrera jaiak uztailearen 14an.  
Harremanetarako: 658 751 359

## kirola > gure txapelduna



**Getxoko** gure txirrindulari ipurterre eta beteranoak poz handia eman digu bere azken garaipenarekin. Vueltako hamaikagarren etapan lehenengoa izan zen Cerlerren helmugaratzen (alboko argazkia) eta atzera gogoratu genuen zaletu euskaldun sufrituok Luz Ardideneko garaipen gogoangarri hura. Zorionak Roberto eta urte askotarako! <sup>m</sup>



## irakurleak > Pakistanetik postala bidali digute UKra



**Pou** anaiekin batera Pakistanen egon da udan Jabi Baraizarra areetarra. Trango Dorrea eskalatzera joan ziren hirurak hara, Pou anaiek eskuarteak daukaten *7 paretak* 7 kontinente proiektuari eutsiz. Honezkerok bost erronka lortu dituzte: Ipar Amerikan Yosemite; Europan, Bulnesko Naranjo; Afrikan, Tsaranoro mendia; Ozeanian, Toten Pole; eta Asian, Trango dorrea, azkena izan dena. Handik hain zuzen ere bidali digu Jabi Baraizarrek alboko postala. Bera Pou anaiekin egon da argazkiak eta bideo irudiak hartzen azken lau espedizioetan. <sup>m</sup>

## Arantxa Yurre > Getxoko Antzerki Eskolako zuzendaria

**Badirudi jainkoek** ezkutuko hitzarmenen bat adostu zutela Arantxa Yurre antzerkiaren munduan barnera zedin. Bestela ezin da ulertu nolatan amaitu duen Getxoko Antzerki Eskolako zuzendari postuan, berak dioskunez inoiz ez baitzuen pentsatu zeregin hauetara dedikatzea, eta kasualitateari egotzen dio orain arte gertaturiko guztia. *“Gezurra dirudi, baina ikasle denboran sekula ez zitzaidan burunatu aktore izan nintekeenik, are gutxiago antzerki klaseak eman nitzakeenik. Getxo I institutuan nembilen garaian, antzerki ikastaro batzuen berri ematen zuen kartel bat ikusi nuen eta izena ematea pentsatu nuen. Zerbait inkontzientea izan zen, eta halako batean antzerkiaren munduan bete-betean sarturik ikusi nuen neure burua”*. Egiazki, hainbeste inplikatu zen interpretazio kontuetan ezen ETBn zuen lanpostua utzi - *“Kazetaritza ikasketak amaitu eta berehala hasi nintzen telebistan beharrean”*- eta antzerkiarekin jarraitzea erabaki zuen. *“Une hartan bidegurutzean nengoan. Alde batean, telebistak eskaintzen zidan soldata eta erosotasuna zeuden, eta bestean zoriontasuna eskaintzen zidan antzerkia zegoen”*. Eta Arantxak argi zeukan zer nahi zuen: zoriontsu eta pobre izatea erabaki zuen. *“Buena, lehen urtea izan zen gogorrena, askorako ematen ez zuen langabezi soldata beste diru-sarreenik ez neukalako”*. Baina handik gutxira Getxoko Antzerki Eskolan klaseak emateko eskaintza jaso zuen, eta halaxe hasi zen Arantxa, eta berarekin batera eskola, hazten. Kasualitateak batzuetan halako sorpresak ematen ditu. <sup>m</sup> Argazkia: **Asier Mentxaka** / Testua: **Estibalitz Ezkerra**

# Elkartasunaren hazia zabaltzen

Aurton beteko ditu **Zabalketa** Gobernu Kanpoko Erakundeak **15 urte** eta epe horretan **100.000 lagun** baino gehiagok jaso dute bere laguntza

Zabalketaren hazia 1988an, Portugalen eta Polonian antolatutako lan-esparru batzuetan, ipini zuen Gaztelueta ikastetxeko ikasle ohi talde batek. Laguntzeko gogoak egin behar bihurtu ziren eta proiektu egonkor eta lagungarriagoa sortzea erabaki zuten 1990ean, hala jaio zen Zabalketa Gobernu Kanpoko Erakunde.

**Euskal Herri** mailako GKE bada ere, egoitza nagusia Areetan dauka eta lotura berezia Getxoko eta Leioako Udalakaz eta herritarrakaz: proiektu asko diruz lagundu dituzte udal biek eta 1.600 bazkideetatik gehienak eskualdekoak dira.

Bolivia, Peru, Kolonbia, Boli Kosta, Nigeria, Dominikar Errepublika, Argentina, Filipinak eta Mexikon eduki ditu proiektuak. Gaur egun, 13 bat egitasmo dauzka martxan Kolonbia, Nigeria, Peru eta Bolivian. Azkenengo ekintzen artean, uztailean Iquitoseko (Peru) "El Humbrillo" aterpetxeko haurrei kirol ekipamenduak bidali zizkieten: Leioako talde ohiarenak eta Athleticceko andrazkoen taldearenak.

Zabalketako arduradunetako bat den Santi Fernandezek azaldu duenez, alor desberdinetan banatzen dituzte egitasmoak: produktuen ekoizpena, oinarriko giza azpiegiturak sortzea, osasun hezkuntza eta zentruak garatzea, giza eskubideen defentsa, politikan parte hartzearen sustapena eta hezkuntza egitasmoak. Arduradunen esanetan, 15



Argazkian, Jaime Bernal eta Santi Fernandez-Gubieda Zabalketaren Areetako egoitzan

urteotan 100.000 pertsoneri eman die laguntza Zabalketari. Halaber, Fernandezek esanetan, proiektu guztietan partekidetasuna bultzatzea garrantzitsua da, "genero politiken ikuspuntutik garatzen ditugu, eta emakumeari zuzendutako hainbat proiektu ere baditugu, berbarako: indarkeria jasandakoentzako egoitza egin dugu Morropen (Peru)".

**«Bolivian, Perun, Boli Kostan, Nigerian, Filipinetan... eman dute laguntza»**

Alabaina, askotan GKEen lana ezkutuan gelditzen da, eta horregatik lagun asko ez da fidatzen. "Ulergarria da, dirua eskatzen dugu eta proiektuen berri ez zaie heltzen; egitasmoak gizarteratu eta erakusteko ahalegindu behar dugu: argazki erakusteta, material didaktiko, bideo eta abarren

bitartez", aitortu du Fernandezek. He-dabideak ere ez dira oso lagungarri, "Nigerian ur edangarrirako ubide bat egitea ez da albiste, zoritxarrez; Carlinhos Brown-eta tartean ez badira!". Mesfidantza alboratzeko Zabalketaren bulegoetara hurbiltzea eta boluntarioakaz berba egitea besterik ez dago. m

## Jakingarri

- [www.zabalketa.org](http://www.zabalketa.org)
- T. : 94 464 3694
- Helbidea: Andres Larrazabal 3, 2. ezk. Areeta
- 1.600 bazkide-boluntario. %40 getxoztarrak dira.
- Bazkide eta boluntarioak: lehenengoek diru bidezko laguntza ematen dute, eta bigarrenek denbora eta lanaren bitartez laguntzen dute.

## Etorkinak euskalduntzeko kanpaina

Informazio orriak banatu eta ikastaroak eskainiko dituzte



Informazio gehiago: 94 464 62 99 edo 94 430 47 34

**Getxoztar** etorkinei euskara ezagutu eta ikasteko aukeren berri emango dien kanpaina martxan dago. Getxoko Udaleko Euskara eta Inmigrazio sailek prestatuta duten ekimena bitan bana daiteke. Alde batetik, 6 hizkuntza desberdinetan idatzitako esku-orriak banatuko dituzte, eta asmoa hurrengo gaien inguruko informazioa eskaintzea da: udalerriaren gaineko zenbait datu, euskararen erabilera herrian, hezkuntza eskaintzaren gaineko azalpenak. Beste alde batetik, HABEk eta Eusko Jaurlaritzak bultzatutako AISA ikastaroak eskainiko dituzte. Ikastarook etorkinentzako harrera-ikastaro linguistikoak dira,

euskara ikasteko oinarri-oinarriko ikastaroak. 16 urtez gorako etorkinei zuzenduta daude, guztira 60 orduko ikastaroak dira eta horietan izena emateko epea zabalik dago urriaren 5a bitartean. 10 euroko kostua dute baina amaitzen dituenari zenbateko osoa itzuliko diote, gainera ikastaroa egin izanaren ziurtagiria eta 8 hizkuntzatan dagoen oinarriko berbak dauzkan hiztegitxo eskuratuko du. Izen ematea eta eskolak Erromon dagoen Udal Euskaltegian (Lope de Vega kalea 12, 3. A) edota Algortako Lauaxeta Euskaltegian (Iparbide kalea 6) izango dira. m

## JARRERA ARRAZISTAK ZEHAZTEKO MAKINA VILLAMONTEN

"Racismomaton" izeneko tramankuluak pertsonon arrazakeria maila zehazten edo neurtzen ei du. Makinak Ipar Amerikako soziologoek garatutako IA inkesta dauka oinarri eta argitu behar da ez duela inkestaren emaitzen daturik gordetzen, ez dela daturik gordeko inolako azterketa soziologikorik egiteko. Testa egiteko 5 minutu nahikoa dira eta emaitza berehala azaltzen da. Areetako Geltoki plazan egon da orain dela gutxira arte, eta hilaren 19tik 25era arte Villamonteko kultur etxean ipiniko dute.

[www.racismomaton.org](http://www.racismomaton.org)



## EUSKARA SUSTATZEKO 49.000 EUROKO LAGUNTZA

Getxoko udalak euskara sustatzeko ekimenak bultzatzeko 49.000 euro banatuko ditu 7 egitasmoren artean: EGIZUrentzat 21.814 euro, Bizarra Lepoan Euskara elkartearentzat 18.000 euro, UKTESTentzat 3.909 euro, UKBerri sareko agerkariarentzat 3.500 euro, Goizargi Zerbitzuentzat 1.500 euro eta San Nikolas eta Zubilleta ikastolen Euskararen Asteentzat 350 euro bakoitzari. Gainontzean, beste 26.000 euroko laguntza ere banatzeko dauzka Udalak.

**RENAULT** ocasión

### IBILGAILU IA BERRIEN GUNEA GETXON

"0 Km" dun ibilgailuak, Ibilgailu ia berriak eta Aukerakoak. **RENAULT**en bermearekin.

Getxo I Institutuaren ondoan

**RENAULT**  
**BILBO BERRI**  
Bizkerra/k.z/g. - ALGORTA  
Tel: 94 410 60 01  
Jon Arrespide, 20 - ERUSTO  
Tel: 94 448 29 03

## Dendariek

hilaren 23an eta 24an azoka egingo dute

**Algortako** 3 denden ekimenez, ia 40 bat saltokik Algortako Dendarien Merkatu Txikia antolatuko dute irailaren 23an eta 24an Metroko Geltoki plazan, Algortan. BBK-k utzitako etxolak ipiniko dituzte plazan eta Udalaren eta Euskara Zerbitzuaren laguntza jaso dute. Izan ere, gero eta gaxagoa da merkatal zentru handien "eskaintzari" aurre egitea, eta beste herri batzuetan horrelako ekimenek harrera ona jaso dutenez, algortarrak ere animatu dira. "Beharpen itzelak" egongo direla aurreratu dute antolatzaileek eta Merkatu Txikiak arrakasta edukiko duelakoan daude, gainera ekimen honetarako batu izanak etorkizunean batuta egoteko eta beste ekitaldi batzuk antolatzeko balio izatea ere espero dute. Herriko merkataritza txikia suspertzeko balio badu, ongi etorri! <sup>m</sup>

Algortako Geltoki plazan egingo da merkatua



**GA**

**GALEA**

**ASESORES, S.L.**

**AHOLKULARITZA**

**JURIDIKOA, FISKALA**

**LABORALA ETA KONTABLEA**

Telletxe, 3 - 1. A • ALGORTA

% 94 460 95 12

**Esther Maestre** > La Gusana liburudendakoa

"Umeen irakurzaletasuna sustatzea da gure erronka"



Argazkian, Esther Maestre eta Cesar Alonso

**Kazetari bik lanbidez gogaituta, alaba jaioberria besoetan, ogibidean jarraitzeko zalantzak eduki ostean, dena utzi eta liburudenda bat zabaltzearen abenturan ontziratu ziren. Orain dela 5 hilabete inguru zabaldu zituzten Esther Maestrek eta Cesar Alonsok La Gusana liburudendako ateak Basagoiti etorbidean, Algortan. Dendaren izena Zoe Valdesen nobela batetik aukeratu zutela azaldu digute.**

—Liburudenda askoren itxiera sarriegi berri den garaiotan, ausartak benetan zuek.

—Arriskua itzel handia zela bagenekien, horregatik eskaintza alor batera bereiztea erabaki genuen. Liburudenda gehienak nobedade guztiak edukitzen ahalegintzen dira, testu liburuak, koadernoak, boligrafoak... denetarik saltzen dute. Ostera liburudenda berezitu oso gutxi dago, eta literatura eta aisialdiko ekitaldiak eskaintzen dituzten gune gutxi: aholkuak eman, hitzaldiak, aurkezpenak, lan-tegiak, ipuin kontalarien ikuskizunak... antolatu gura ditugu. Esan behar dut epe honetan ez zaigula hain txarto joan, harriritu gaude. Umeen irakurzaletasuna bultzatzea da gure erronka, eta bai, jendeak erosi egiten ditu haurrentzako liburuak.

—Zer eskaintzen du La Gusanak?

—Haur eta gazte literaturan berezitutako denda da, baina nagusientzako liburuak, al-dizkari espezializatuak eta hainbat disko ere saltzen ditugu. Haurren txokoa paratu dugu: liburuak, marrazki albumak etab. daude eta umeek margoztu eta irakurri dezakete. Bestalde, euskaraz umeentzako argitaratzen den guztia edukitzen ahalegintzen gara.

—Gormutuentzako ekitaldiak antolatzen dituzue.

—Guk zeinuen hizkuntza badakigu. Ia ez daude ume gormutuei ipuinak kontatuko dizkieten lekurik eta erabaki genuen gure txokoa

**"Ipuin kontalariak ekarriko dituzte zapaturu urritik aurrera"**

eurei ere zabaltzea. Zapatuetan ipuin kontalariak ekarriko ditugu: zapatu batean gaztekeraz, hurrengoan euskaraz, gero zeinuen hizkuntzan... Urrian programari berriro ekingo diogu.

—Datorren udagoienerako gomendiorik?

—Kamioia nobedadez nahiko beteta dator, adb.: umeentzako *Gaxtamin eta suzko harria* (Marcus Pfister, Alberdania), gazteentzako Narnia-ren bilduma (Destino), eta nagusientzako *La piel fria* (Albert Sanchez Piñol). <sup>m</sup>

## Andrazkoentzako

ikastaroak antolatu dituzte urritik aurrera



Autodefentsa ikastaroa eskainiko dute. Informazio gehiago: 94 466 01 30

**Getxo**, Basauri, Ermua eta Ondarroako udalek bultzatzen duten Emakumeentzako Jabekuntza Eskolak ikasturte berrirako ikastaroen eskaintza plazaratu du. Urrian hasi eta abendura arte 5 ikastaro egingo dituzte: Emakumeon partaidetza politikoa, Munduko Emakumeen literatura, Autodefentsa eta Emakumeen nortasuna eta subjektibotasuna. Horrez gainera, foro irekia, topagunea eta eztabaidarako guneak antolatzeko asmoa daukate. Izena emateko epea irailaren 21etik 30era izango da eta Algortako, Erromoko

edota Andra Mariko Herritarren Arretarako Bulegoetan egin beharko dute (plaza mugatuak daude). Ikastaro edo hiruhilekoaren prezioa 5 eurotako izango da. Aipatu ikastarootan parte hartzeagatik EHUk aukera askeko kredituak emango dituela, eta bestalde, urtarrietik aurrera beste ikastaro batzuk eskainiko direla. Iaz 170 emakumek baino gehiagok parte hartu zuten Emakumeentzako Jabekuntza Eskolako ikastaroetan eta partehartzaileen batez besteko adina 48 urtekoa izan zen. <sup>m</sup>

## COCIDITO MADRILEÑO ANTZEZLANA GETXO ANTZOKIAN

Bazter guztiak astindu dituen antzerki lan arrakastatsua Getxon ikusi ahal izango da akabuan. Guztira lau emanaldi egingo dira: hilaren 23an eta 24an, eta egun bakoitzean bina emanaldi, 20:00etan eta 22:30ean. Sarrerak alde aurretik erostea komenigarria da, izan ere, emanaldi askotan *Sarrerak agortuta* kartela eskegi behar izan dute.

## ERDI AROKO AZOKA IRAILAREN 16TIK 18RA

IV. Erdi Aroko Azoka hilaren 16, 17 eta 18an egingo da Algortan (11:00-14:00 eta 17:00-21:00). Saltokiak eta ikuskizunak hurrengo lekuetan egingo dira: Basagoiti etorbidean zehar eta Biotz Alai, San Nikolas, Antzokia, Teillagorri, Satistegi eta Tangora plazetan. Musika, artisauen lanak, antzerkia, aztiak, gastronomi dastaketak... hori bai denak Erdi Aroan baleude legez prestatuta eta atonduta.

## GAZTEENTZAKO IKASTAROA URRIAN

Gazteria Zerbitzuak datorren hiruhilerako ere (urria-abendua) ikastaroak antolatuko ditu: jendaurrean hitz egiteko teknikak (18-30 urte), makilajea (12-17 urte), perkusioa (12-17 urte), gitarra (12-20 urte), malabareak, papiroflexia, ikasketa teknikak eta drogak (12-17 urte), sukaldaritza (18 urtetik gorra) eta funky dantza (12-17 urte). Izena emateko epea seguruenik hile amaieran zabalduko da.

Informazio gehiago: 94 491 01 14

**AEK, Euskararako zeure garraiobidea**



Freskatu zeure euskara



EGA, hizkuntz eskakizunak



Euskal Herria euskalduntzen



Ikasgu hornituak



Metodologia komunikatiboa



Ikasgu homologatuak

Udalek subentzionatuta

**aek**

www.aeknet.net

i | Urbe Kostako aek: Algorta Tel: 94 4304734 • Leioa Tel: 94 4646063 • Sopela Tel: 94 6764876 • Plentzia/Gorliz Tel: 94 6773607

Zure publikitatearen hemen  
Zure publikitatearen hemen  
Zure publikitatearen hemen

94 491 13 37

Egunkariak  
prentsa eta aldizkariak

nahi izanez gero,  
etxera eramaten dizugu  
egunkaria!!!

## [leioa]

**Maren Goti** > Leioako Ostalaritza Eskolako irakaslea

“Gero eta jende gehiagori interesatzen zaio ostalaritzaren mundua, behar gogorra bada ere lanbide polita da eta”

**Ostalaritza Eskola** 1981ean Plentzian sortu bazen ere, urte bi beranduago Leioako Kanpusera aldatu zen. Bertan ostalaritzarekin zerikusia duten lanbideak ikas daitezke. Eskolako irakasle eta idazkari den Maren Gotik azaldu digunez, eremuko alor guztietan hezkuntza ematen ahalegintzen dira. *“Hezkuntza Ziklo ezberdinak dauzkagu esparru guztiei begina: sukaldaritza, zerbitzari lana, gozogintza, txarkuteria, errestaurazioa”*. Zikloaren arabera ikasketak urte bi edo urtebetekoak izaten dira, eta zikloen artean bi dira “izarrak”: sukaldaritza eta errestaurazioa.

Guztira 250 ikasle dabilta aurtan Ostalaritza Eskolan. Maren Goti irakaslearen esanetan irtenbide profesionala ona da, *“ikaske-*

**«Egunero mila bazkaritik gora prestatzen dituzte eskolako ikasleek»**

*tak amaitutakoan nahi duten guztiek lana aurkitzen dute”*. Gainera, eskolaren uzta ez da nolanhikoa, *“agian ez dira oso famatuak izango jende arruntarentzat baina hemen ikasitako sukaldari nagusi ugari dago”*. Esate baterako, Guggenheim Museoko jantokiko Jose Antonio Martinez Arija, Andramari Jatetxeko Eneko Atxa, Canales bera edo Mikel Poblacion sukaldariak Leioako Kanpusean hezitakoak dira.

Praktika ikasteko modurik onena da eta horren erakusgarri dira Ostalaritza Eskolan egunero ematen dituzten milatik gora bazka-



“Eskolatik puntako sukaldariak atera dira: Canales, Martinez Arija, Eneko Atxa...”

riak. Eskolako jantokian bazkaltzera datorrenari zerbitzatzen ikasleek beraiek “lan” egiten dute. Maren Gotik argitu digunez hiru jantoki daude Eskolan: *“Bata menu arrunta da, prezio finkoa daukana (lau euro inguru). Gero badaukagu buffet zerbitzua, aukeraren arabera ordaintzen duzu (apurtxu bat garestiagoa izaten da: 5-6 euro inguru). Azkenik, jantoki gastronomikoa, kartako platerak eta abangoardiako sukaldaritza eskaintzen ditugu”*. Kalitate oso ona eskaintzen dute, batez ere, prezioari begiratzen badiogu. Gotik Jantoki Gastronomikoa azpimarratzen du, *“jendea lilumtuta ateratzen da”*. Zerbitzari dagokionez, gertatu ohi da jendeak mahaia

hartzeko itxaron behar izatea, horregatik mahaia ziurtatzeko gomendagarria da telefonoz deitzea (94 601 52 94). Gogoratu astean zehar irekitzen duela eta bazkariak baino ez dituela ematen.

Eskolako web orrian ([www.hostelerialeioa.net](http://www.hostelerialeioa.net)) eguneko menua, karta eta buffet zerbitzuko eskaintza ikus daitezke bazkaltzera joan aurretik. Horrez gain, jantokietan egiten diren errezeta eta sekretuak ikas daitezke Eskolako ikasle eta irakasle artean sortu duten webgune berrian ([www.gastronomiavasca.net](http://www.gastronomiavasca.net)). Bertan jaki eta produktu bakoitzaren berezitasuna azaltzen da. m

## Musikale 2005

**Irailaren 16, 17 eta 18an** nazioarteko musika bandek girotuko dute herria

**Bosgarren urtea** beteko du aurtan Musikale Nazioarteko Kaleko Musika Banden Jaialdiak. Egun horietan hainbat lekutako eritmo eta soinuek girotuko dituzte herriko kaleak. Guztira 12 talde izango dira parte hartuko dutenak: bi Euskal Herrikoak, Brasilgo beste bat eta gainontzekoak Europakoak: Frantzia, Eskozia, Andaluzia, Britainia, Belgika, Italia eta Portugal.

Irailaren 16an arratsaldeko 7:30ean La Banda de Verdiales eta Bigodes Band taldeek emango diote hasiera Musikaleri. Lehenengoak –andaluziarrak– biolina, gitarrak, pandero eta txindaten laguntzaz kanta herrikoiak eritmo alaiak joko dituzte. Bigarrenek, Portugaletik etorriak, jazzak, musika klasikoa eta zirkoa uztartzen duen ikuskizun paregabea eskainiko dute.

Larunbat eta igandean (irailak 17 eta 18) emanaldiak 12:30ean hasiko dira goizean eta 7:30ean arratsaldean (igandean 18:30ean). Aipatzekoak dira Kalinbo bandaren sanba eritmo brasildarra edo Eskoziako gaita doinua Clan An Drummarren eskutik.



Musikaleren kartela

Aurreko urteetan bezala beste herri batzuetan ere musikaz gozatzeko aukera edukiko dute. Leioaz gain, Zornotzan, Sestean Erandion eta Basaurin txandakatuko dira musika bandak. Horrela, jaialdiko azken egunetan, igande gauean, Basaurin elkartuko dira talde guztiak musika jai handia ospatzeko. m

### KULTUR LEIOAK BERE LEHEHENGO URTEBETZEA OSPATUKO DU AURTEN

Irailaren 23an Udalenen Kultur Arloak ikuskizun berezia antolatu du Kultur Leioaren lehenengo urteurrena ospatzeko. Egun horretan gaueko 10:00etatik aurrera, Errekalde Plazan, Maracaibo antzerki taldearen eskutik dantza, antzerki, argi eta su artifizialak uztartzen dituen *Solo Mediterraneo* ikuskizuna gozatu ahal izango da. Gogoratu orain urte bete udaletxeko kultur bulegoak biltzeko eta auzoetako Kultur Aretokin koordinatzeko sortu zela Kultur Leioa. Orditik hona, eraikin berrietik erakusketak, musika, dantza, zinema, konferentzia, antzerki eta tailer ekintzak antolatu dira.

### ONDARE HISTORIKOA BERRESKURATZEKO EGITASMOA

Udaletxeko Kultur Sailak Leioako ondare historikoa berreskuratzeko, irauraratzeko eta zabaltzeko ekimena abian jarri du. Lehenengo urrats moduan argazki-artxiboa handitzea proposatu die leioztarrei. Horretarako, armairu, kutxa eta ganbaretan arakatzeko eskatu die aspaldiko irudiak bil dezaten. Familiartekoak, kirol ekitaldiak, paisaiak, erretratuak, ... Leioarekin zerikusia duten argazki guztiek balio dute. Ahal izanez gero data eta irudia non ateratu den idatzi atzeko partean eta Kultur Leioara eraman. Bertan irudia eskaneatu eta astea igarota bueltatuko da. Informazio gehiago eskatzeko deitu: 94 607 25 78

**ERROTULOAK** ERA GUZTIETAKO ERROTULOAK eta INPRESIO DIGITALAK egiten ditugu

**BEST**

e-mail: [hirustab@euskalnet.net](mailto:hirustab@euskalnet.net)

Iparagirre etord. 90 (Avanzada) • LEIOA • Tfno. 94 480 41 15 Fax: 94 480 41 83

**udondo**  
taberna  
eguneko menua eta afariak

Lehendakari Agirre,2  
T: 94 463 00 45 - LEIOA

**osasangarria gozoa ...**

**2005-2006 matrikula zabalik**

**MASTITXU EUSKALTEGIA**

- Euskalduntze eta alfabetatzea
- Ega + habe 1 + habe 2 tituluak
- Ordutegi guztiak
- "Masti klik" autoikaskuntza (Boga)
- Material didaktikoa
- Pantaila erraldoia
- Hainbat ekitaldi euskaraz

Iparagirre etorbidea 78  
48940 LEIOA  
Tel.: 94 464 00 02 Fax: 94 480 25 80  
[www.euskaltegieioa.com](http://www.euskaltegieioa.com)  
[mastibulego@telefonica.net](mailto:mastibulego@telefonica.net) / [mastiklik@telefonica.net](mailto:mastiklik@telefonica.net)

LEIOA ELIZATEKO UDALA

HABEren dirulaguntzaz



## [erandio]

**Joxe Legarreta** > Erandioko Udal Euskaltegiko zuzendaria

“Klasera sartu eta euskara ikasteko gogotsu dauden lagunak aurkitzea pozgarria da”

**Joxe Legarreta Bilbotarra da, Begoñakoa zehazki. Kimika ikasketak egin zituen arren ibilbide profesional guztia euskara irakasten eman du. Erandioko Euskaltegia sortu zenean hantxe hasi zen beharrean Joxe. Gaur egun Euskaltegiko zuzendaria da. Bertan batz bestea, 250 ikasle eta 8 bat irakasle dabilta.**



“Euskara irakasleari gizarteak ez dio duen garrantzia aitortu”

—Zelan hasten da kimikan lizentziatu bat euskara irakasten?

—Nik ikasketak amaitu nituenean krisi ekonomiko handia zegoen. Bizkaiko lantegi asko ixten hasi ziren orduan. Gauzak horre-

«Aurten hogeitau urte beteko ditu Erandioko Udal Euskaltegiak»

la, hezkuntzara bideratu nuen nire etorkizuna. Garai hartan, 1985ean, Erandioko Udal Euskaltegia sortzeaz zegoen eta hantxe hasi nintzen beharrean. Gustura nengoen, lan atsegina zen eta gainera euskara ikastera zetozenak gogotsu zetozen. Eta horrela gaur arte. —Orduko ikasle eta gaur egungo ikasleentz artean alderik egongo da, ezta? —Bai, jakina. 1985-90 urteen artean hona etortzen zirenak sentimenduz-edo zetozen. Euskara, euren hizkuntza zena, ikasi nahi zuten. Ikasle mota hori apurka-apurka desagertuz joan zen eta beste era batekoak etor-

tzen hasi ziren. Esaterako, A ereduiko ikasleak, euskara ikasgai makal zebiltzanak eta euskaltegiaren bitartez ikasgaia aprobata nahi zutenak. Gaur egun hastapenetako ikasle mota hura atzera etortzen hasi zaigu. Beste kopuru handi bat euren perfila atera nahi dutenak ere badira.

—Aurten 20 urte beteko ditu Udal Euskaltegiak. Ospakizunik antolatu al duzue?

—Bai. Abenduaren 3an ospatzen den Euskararen Egunerako ekitaldi erraldoia antolatu zuten gaitza Erandioko Euskara Zerbitzua-ekin batera. Karidadeko Benta taldea ekarriko dugu herrira, eta antzerkia ere egongo da.

Gainera, azken 20 urte hauetan euskaltegitik pasatutako ikasle eta irakasleak atzera batu nahi ditugu bazkari handi batean.

—Zein da euskara irakastearen alderik txarrenera eta zein onena?

—Batetik, esango nuke euskara irakasleari gizarteak ez diola duen garrantzia aitortzen. Etsigarria ere bada batzuetan euskaltegitik igarotako ikasleak euskara ikasteari itxi beharra talde berriak sortzeko aukerarik ez dagoelako. Atsegina, berriz, klasera sartu eta euskara ikasteko gogotsu dauden lagunak aurkitzea da. Eta egun txarra eduki arren, hori ahaztu eta alaitzen zara. m

## Sanagustinetako ur gerra

Abuztuaren 28an ospatzen da San Agustín. Gutxiak jakingo duzue baina teologoaren eta inprentetako beharginen santua da San Agustín. Erandion jailetarako aitzakia da santu hau eta jai ederrak antolatzen dituzte haren omenez. Ur gerra ere egin dute aurten eta gu hantxe egon ginen.



### ANDRAZKOEN TALDEAK IKASTAROAK ANTOLATU DITU

2005-2006 ikasturterako Erandioko Emakumeen Elkarte Soziokulturalak antolatu dituen ikastaroetan izena emateko epea zabalik egongo da irailaren 19tik 28ra. Aukera zabalik eskaintzen dute: yoga, taichi, gimnasia, eskulanak, pintura, ziri-parpaila, korua, antzerkia, dantzak, euskara, eta beste. Bekoa ikastetxean elkarteak dituen bulegoetara jo behar dute interesatuek izena emateko, arratsaldeko seietaatik zortzietara. Ikastaroetan emakumezkoek zein gizonezkoek parte hartu ahal izango dute, baina, beti bezala, bazkideek dute lehentasuna. Erandioko Emakumeen Elkarte Soziokulturalako kideek asteartero izaten dute zabalik bulegoa arratsaldeko 7etatik 8etara eta bestelako jarduerak ere gauzatzen dituzte urtean zehar: txangoak, Liburuaren Eguna, zineforumak, hizketaldiak, Emakumearen Astea, inauteriak, Sahararen aldeko herri bazkaria eta abar.

### JON BERNARDEZEN ARGAZKI PAREGABEAK JOSU MURUETAN

Irailaren 20tik urriaren 3ra arte Jon Bernardezen argazki ederrak eskegiko dituzte Josu Murueta kultur etxean. *Instinto Urbano* du izena erakusketa aparta honek eta izenburuak dioen moduan hirietan ateratako argazkiak biltzen ditu. Besteak beste 1992 eta 2002 urteen artean Bilbon, New Yorken, Belfasten, edota Lisboan bat-batean hartutako irudiak osatzen dute erakusketa.

## Euskara ikastaroak Cursos de euskera 2005/2006

IRAILA-EKAINA SEPTIEMBRE-JUNIO

- \* Euskalduntze eta alfabetatzea
- \* Ega + HABE 1 + HABE 2 tituluak
- \* Orduetegi guztiak
- \* Euskara zerbitzua-aren beka eta dirulaguntzak
- \* Ekitaldiak, euskaraz
- \* BOGA, internet bidezko irakaskuntza

- \* Euskaldunización y alfabetización
- \* Titulos Ega + HABE 1 + HABE 2
- \* Todos los horarios
- \* Becas y ayudas del servicio de euskera
- \* Actividades en euskara
- \* BOGA, enseñanza por internet



1985-2005  
20. urteurrena

MATRIKULA EPEA ZABALIK

PLAZO DE MATRICULA ABIERTO

\*CLASES en Astrabudua (IES Astrabudua) y en Erandio (Bekoa Ikastetxea)



ERANDIOKO UDAL EUSKALTEGIA



HABEren dirulaguntzaz

Bekoa Ikastetxea Desanexión kalea, 4 behe Tel.: 94 467 60 75  
erandio.eusk@euskalnet.net / www.erandioko-udala.net

**VIEJO CAFE**

kopak eta giro jatorra

Alangobarri, 4 Tel. 94 460 30 03  
ALGORTA

**BETIKO IKASTOLA**

- 0 eta 16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskalduna.
- Ingelera 4 urtetik aurrera.
- Frantsesa DBHn.
- Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia (sukaldea bertan), merienda.
- Eskolaz kanpoko ekintzak: musika, gitara, adierazpena, saskibaloia, eskupilota, panderoa, bertsolaritza, euskal dantzak...
- Frontoia, futbito zelai estaliak, berdeguneak...

Artatza Auzoa 84, LEIOA • Tlf: 94.464.23.64 / 94.464.33.07  
e-mail: leioa@ikastola.net • www.ikastola.net/ikasweb/leioa

## BARINATXEKO LASTERKETA NUDISTA HILAREN 17AN

Beste behin ere, aurten lasterketa nudista antolatu dute Barinatxeko hondartzan. Hitzordua irailaren 17an ipini dute goizeko 11:00etan. Nudismoaren aldeko aldarrikapena egiteko lasterketa honetan urtero-urtero jende askok hartzen du parte, iaz gutxi gorabehera 130 korrikolarik gainditu zuten helmuga. Beraz, nudismoaren alde bazaude eta kirol apur bat egiteko gogoak badauzkazu badakizu non eta noiz jarri duten hitzordua.

## IKASTAROETAN IZENA EMATEKO EPEA DAGOENKO ZABALIK

Musika ikastaroetan eta lantegi artistikoetan izena emateko epea zabalik dago. Musika alorreko eskaerak udaletxeko Hall Kulturalean aurkeztu beharko dira 18:00etatik 21:00etara, eta artistikoetarako eskabideak Itzartu elkartearen egoitzan. Musika ikastaroen artean hurrengo eskaintza dago: pianoa, hizkuntza musikala, gitarra, txistua, txirula eta harrera-ikastaroa. Ostera, lantegi artistikoetan hurrengo aukerak daude: eskulanak, margolaritza eta argazkilaritza.

Informazio gehiago: 94 406 55 19 edo 94 676 55 95 (Itzartu)

## ETXEBIZITZAREN OKUPAZIO MAILA EZAGUTZEKO IKERKETA

Etxebizitza eskuratzeko herritarrei bidea errazteko ekimenen artean, Sopelako udala udalerrian etxebizitzaren okupazio maila eta egoera ikertzen dabil. Hori dela eta, informazio hori lortzeko asmoz auzotarrek udal behargin baten bisita jasotzea posiblea dela iragarri dute.

## Nuyum elkarteak Sahara herriaren aldeko astea antolatuko du irailaren amaieran



Tindouf-eko errefuxiatuen kanpamendua

**Herri** Sahauriaren aldeko Astea antolatuko du Nuyum elkarteak Sopelan hilaren amaieran. Irailaren 26tik urriaren 1era bitartean hainbat ekitaldi prestatuko dituzte Saharako errefuxiatuei elkartasuna adierazi eta eurentzako dirua biltzeko. Ekitaldi denak udaletxe inguruan egingo dira. Asteleheneetik eguenera arte aurreikusten diren ekimenak hitzaldiak dira eta Hall Kulturalean egingo dira (19:00etan): Ekimenaren aurkezpena eta Nuyum elkartearen urtebeteko esperientzia (hilak 26), Martxa Berdean saharauiak batera egondako Gurutze Beitia erizaina (hilak 27), errefuxiatuen kanpamenduetako ordezkariak (hilak 28), eta Afapredesa elkarteak eta Union de Mujeres Saharais-eko ordezkariak (hilak 29).

Barikuan, Herri Saharuiaren alde dirua biltzeko txosnak 18:30ean zabalduko ditu ateak eta ostean, zozketari emango zaio hasiera (subasta): zeozer saldu gura duenak bertara jo dezake eta objektu horregatik zenbat diru emateko prest dagoen egingo du postura jendeak. Salmenta bakoitzeko irabazien %20 gizarte laguntzara bideratuko da eta gainontzekoa saltailearentzat. Zapatua ekintzaz beteta helduko da, goizean txistulariak, puzgarriak, ekitaldi politikoa, Sopelako musika bandaren kontzertua, 250 lagunentzako paella bazkaria... Arratsaldean umeentzako pailazoaren ikuskizuna eta erromeria iragarri dituzte eta gauean kontzertua. Gainera jaima bat paratu dute plazan egun osoan. m

## Ugeragaren zilarrezko ezteiak Futbola, tximindularitza eta saskibaloia Sopelan



Taldea sortu zenetik lehendakaritzan egon da Cefe Amarika

**Ugeragak** aurten betetzen dituen urteak beste daroaz Cefe Amarikak talde sopoloztarraren lehendakaritzan, eta nor bera baino hobeto taldearen 25 urteen gaineko kontuez berba egiteko. *“Garai hartan bi futbol talde zeuden herrian: Larrabastera betenarena eta Ugeraga mutikoena, baina federatzerakoan bi taldeek bat egitea enabaki genuen”*. Ondo gogoan dauzka lehendakariak garai haiak: *“Lehenengo 3 urteetan ez genuen futbol zelairik, denboraldi bat Plentzian jolastu genuen eta beste biak Negurin, Urkoko zelaia egin zuten arte”*. 1982an beste kirol bi hartu zituen elkarteak: saskibaloia eta tximindularitza. Gaur egun 350 bat kirolaririk dihardute Ugeragan: futboleko 10 talde daukate, horietako 2 andrazkoak; tximindularitzan, eskolaz gain, 5 maila desberdinetan dihardute, eta andrazko taldea ere badaukate; azkenik, saskibaloian 4 talde lehiatzen dira, bina generoko. Hala eta guztiz ere, ugeragatarren artean andrazkoak 40 inguru baino ez dira.

Aurten Taldearen armarrria zaharberri dute sopoloztarrek, eta horrez gainera, Ugeragaren ereserkia ere grabatzekotan dabilta:

*“Musika Uribe Bazterra bandak sortu du Imanol Garairen laguntzagaz, eta letra ere alkateak berak idatzi du”*.

Bestalde, futboleko denboraldian laino beltzak ikusten zituzten, *“askok taldeetik ospa egin dutelako, baina talde gaztea eta kalitate onekoa osatzea lortu dugu akabuan”*. Tximindularitzan, gazte eta kadeteen bernen indarrari begiratu gero iazko denboraldia bezain ona izateko esperantza daukate, besteak beste Eneritz Zorrilaren bizikletari lotuta. Eta saskiratzeak ere Ugeragaren alde izan bitez beste 25 urtez behintzat!

### Ospakizun jaia hilaren 17an

Zilarrezko ezteiak ospatzeko jaia hilaren 17an egingo dute Urkon: kirol partidak, trikitixa, fanfarria, haurrentzako jolasak, herri bazkaria... Sopoloztar denak gonbidatzen ditu Amarikak. Beste ekitaldi batzuk ere antolatuko dituzte, *“Gabonak aldera edo; gero Athletic jolastera etortzeko zen, baina azkenean ezin izan du, hala ere, esperantza badaukagu urtean zehar egunen bat gurea etortzeko topatuko dutela”*, dio presidentek. m

Zure publizitatea hemen  
Zure publizitatea hemen  
Zure publizitatea hemen

94 491 13 37

# GAVRKO



GIZONENTZAKO  
MODA  
Telletxe 5  
ALGORTA  
T:

## ANDER DEVNA IKASOLA


- Hezkuntza integrala urte 1etik 18ra artekoa
- Irakaskuntza eta hezkuntza
- Informazioa eta partaidetza
- Eleaniztasuna
- Esperientzia eta berrikuntza

Gatzarrine z/g. Sopelana  
Tfnoa.: 946760266 - Email.: [sopela@ikasola.net](mailto:sopela@ikasola.net)

## JATETXE BEGETARIANO

- Eguneko menuak
- Asteburuetan menu bereziak

Serituxa 4, Sopela  
Telf. erreserbak: 645 732 991



# 4 bide pinturak



Loroño 2 • Tlf/Fax 94 676 29 92 • SOPELA  
Iturbarria 3 • Tlf: 94 442 01 55 • BILBO

**UDALAK HELDUENTZAKO ESKOLAK ANTOLATU NAHI DITU**

Irakurmena eta idazmena lantzeko helburuagaz Berangoko udalak helduentzako eskolak antolatzeko asmoa dauka. Eskolen jomuga ez da izango eskola graduatua lortzea, irakurmena eta idazmena lantzea baino, eta ekimena aurrera eramateko talde txoa sortu beharko da. Eskolak asteleheneretik barikura emango lirateke Santa Anako kultur etxean 16:00etatik 18:00etara. Parte hartu gura duenak udal bulegoetan aurkez dezake eskaera epea zabalik dago eta.

**MUGIKORTASUN IRAUNKORRAREN ASTEA MARTXAN DA**

Europako Mugikortasun Iraunkorraren Astea ospatzeko hainbat ekitaldi antolatuta dituzte hilaren 16tik 22ra. Ekitaldi batzuk egin dituzte dagoeneko, baina horra hor beste batzuentzako zita: familia osoarentzako txirindularitza martxa Berangoko Txirindulari Elkarteagaz batera (Moreaga kalea, irailak 17, 16:30ean); Haur Jaialdia: puzgarriak, oztopo-zirkuitua, garraibide alternatiboen zirkuitua, oztopo arkitektonikoez sortutako arazoak ezagutzeko jarduerak... (Eskolan edo frontoian, hilak 17, 17:00-20:00). Azkenik, "Nire autorik gabeko eguna" ospatzeko, irailaren 22an, lantegiak egingo dituzte ludotekan. Bestalde, Gaxt Klubeko 2 euroko kreditransa oparitutako diete garraio publikoaren erabilera sustatzeko asmoz.



**Urria heldu eta berehala egingo da XVIII. Nazioarteko Milia, hilaren 1ean**



Orain dela urte biko lasterketa

**Berangoko** Nazioarteko Miliak estreinatuko du urria eta aurton bere XVIII. edizioa beteko du. Lasterketari arratsaldeko 4:30ak aldera emango zaio hasiera eta mailaren arabera, (txikienak lehenengoak) hasiko dira korrikolariak galapan: andrazko haurrak eta kadeteak 16:40ean, gizonetako haurrak eta kadeteak 16:50ean, andrazko gazteak eta juniorkak 17:05ean, gizonetako gazteak 17:20ean, gizonetako juniorkak... eta horrela hurrenez hurren. Berangoko Udal Atletismo Eskolakoak 18:35ean abiatuko dira eta ostean eliteko izarren txanda izango da: andrazkoak 18:50ean, gizonetakoak, berriz, 19:10ean.

**Izen-ematea udaletxean**

Lehiaketan parte hartu gura duten guztiak Berangoko udaletxean eman beharko dute izena hilaren 26tik 30era bitartean hurrengo orduetartean: 18:00-20:00. Alabaina, eliteko federatuek ez dute edukiko betebeharrak hori eurek gonbidapen bitartez eskuratuko dute-eta Milian korrika egiteko txartela.

Lurreko milia bat, zehazki, 1.609,344 metrok osatzen dute eta Berangon distantzia hori nork korrituko duen arinago jakin gura duenak badaki noiz eta non daukan hitzordua: urriaren 1ean, zapatua, arratsaldeko 4:30etik aurrera. m

**San Antolin eguna**

Urtean zehar jai gehiago ospatzen badituzte ere, sanantolinak dira plentziarren festarik garrantzitsuenak. Jai egun horietan irailaren 2a da egunik handiena, San Antolin eguna hain zuzen ere. Hantxe egon ginen, umeez jantzitako buruhandiengandik ihesi, herriko tabernariak egun horretan baino ez prestatzen dituzten koktelak dastatzen...



**TXIBERRI edantokia frontoi partikularra**

Aita Gotzon 4, URDULIZ  
T: 94 676 07 15



**Ajuria taberna**

Andrés Cortina 2  
**ALGORTA**



**BASALBO BASERRIA**

**JATETXEA**

TEL./FAX: 94 491 34 91

MARTITURRI ESTARTA 18  
48993 ANDRA MARI - GETXO

basalbobaserrria@yahoo.com

**Basurto**  
Algorta S.L.  
altzariak

**LEHEN, ORAIN ETA BETI**

- **1970**az geroztik altzariak diseinatzen.
- 300 m<sup>2</sup>ko erakusketa **ZURE ZAIN!**
- **ARMAIRUAK NEURRIRA** egiten ditugu (Telletxe 4)

Telletxe 4 • T: 460 71 62 / Telletxe 15 • T: 460 42 44 • ALGORTA

## ZAINZAILA ETA ESKOLA PARTIKULARRETARAKO IRAKASLEENTZAKO LAN POLTSA

Uribe Kostako Euskara Zerbitzua zaintzaile eta eskola partikularretarako irakasle eskaldunen zerrenda osatzen dabil, zerbitzu horiek kontratatu nahi dituenari aurrerantzean eskaintza hori egin ahal izateko. Sarritan gertatzen da, gurasoek umeak zaintzeko pertsona eskaldun bat behar izatea eta pertsona hori aurkitzeko nora jo ez dakitela. Edota seme-alabak D ereduan dituztela eta euskaraz ez jakiteagatik ezin dituztela haurrak etxeko lanetan lagundu. Eskaera honi erantzuna emateko lan poltsa osatu nahi du Euskara Zerbitzua. Lan poltsa horretan izena eman nahi duenak Euskara Zerbitzura deitu baino ez du egin behar: 94 676 26 74

## URIBE KOSTAKO SKATE ARGAZKIAK URDULIZEN

Carlos Terreros algortarra Estatuko skate argazkilaririk onenetakoa da. Berak Uribe Kostan egindako kirol honi buruzko argazki ikusgarriekin erakusketa ibiltaria antolatu du UK aldizkariak. Irudi horietan azaltzen direnak eskualdeko skater gogoangarriak dira, eureta bartzuk gainera profesionalak dira gaur egun. Erakusketa Algorta eta Sopelan egon ondoren, Urdulizko kultur etxean dago orain urriaren 2ra arte. Urriaren 3tik 16ra Gorlizko kultur etxean egongo da eta hil horren 17tik 30era Plentziakoan.

## PLENTZIA

### Euskara taldea martxan dago daborduko



Euskara erabiltzeko gogotsu dabilzan plentziarrak

**Plentziako** gazte eskaldun berri baten ekimenez lagun talde bat batzen hasi zen pasa den uztailean herrian euskara taldea osatzeko. Eguaztenero batzen dira euskara bultzatu gura duten euskaltzaleak, euskara ama hizkuntza duten eskaldun zaharrak eta euskara hobetu nahi duten eskaldun berriak, hogei lagun inguru, egunaren arabera. Taldea ez da euskara talde klasikoa, momentuz euskaraz berba egiteko, kantatzeko eta dena delakoa egiteko batzen

diren plentziarren taldea da. Taldea ia jaioberria izan arren, ekintza desberdinak egin dituzte: osteratuak, meriendak, diaporama erakusketa eta abar. Hemendik aurrera taldeak gauza gehiago egiteko asmoak dauzka: hitzaldiak, bideo-emanaldiak... Hortaz, bada-kizu, euskaraz berba egiteko lagunak behar badituzu, euskara hobetu edota euskara bultzatu gura baduzu gerturatu eguaztentean 20:00etan Goñi Portalera. m

# Ira. 18 - Urr. 2

Zuon ekitaldiak iragartzeko • Posta elektronikoa: [uk@aldizkaria.biz](mailto:uk@aldizkaria.biz) • Tel.: 94 491 13 37 • Fax.: 94 491 58 31

## ERAKUSKETAK

### PLENTZIA

► **Margo Lehiaketako lanak.** Erakusketa gela. Irailaren 30era arte.

### GORLIZ

► **Eskualdeko Ondare Historikoa.** Eloisa Artazako Erakusgela. Irailaren 30era arte.

### ERANDIO

► **"Instinto Urbano", J. Bernardez.** Argazki erakusketa. Josu Murueta kultur etxea. Irailak 20-urriak 3.

► **Gorka Larrearen argazki erakusketa.** Udalaren Erakusketa aretoa. Irailak 26-urriak 2.

### URDULIZ

► **Sk8UKn, Carlos Terreros.** Argazki erakusketa. Kultur Etxea. Irailak 19-urriak 2.

### LEIOA

► **Erdi Aroko miniatura militarrik.** Kultur Leioa. Irailaren 30era arte.

► **"Solidaridad, ¡imagínatela!"**. Boluntak eta Aterperen ekimenez. Kultur Leioa. Irailak 26-urriak 1.

## ZINEMA

### PLENTZIA

► **Un toque de Canela.** Helduentzako zinea. Erakusgela. Irailak 23, barikua. 22:00.

► **En America.** Gazteentzako zinea. Erakusgela. Irailak 24, zapatua. 18:00.

► **5x2 cinco veces dos.** Helduentzako zinea. Erakusgela. Irailak 30, barikua. 22:00.

## ANTZERKIA

### GETXO

► **Cocidito Madrileño.** Gluglu taldea. Getxo Antzokia. Irailak 23 eta 24. 20:00



► Egunpasa

### Txalaparta Jaia Algortan hilaren 24an

UKTEST, Uribe Kostako Txalaparta Ekimenetarako Sustapen Taldeak bigarren antolatuko du aurten Txalaparta Jaia Algortan. Eskualdean txalaparta ezagutzera eman, euskararen erabilera bultzatu eta euskal kultura bera ere suspertzea nahi dute jai honek UKTESTeko lagunek. Jaiak hiru gune nagusi edukiko ditu: Zabala kalean txalaparta ezagutu eta jotzeko aukera egongo da; Tangora etxearen inguruan azokatxoa egongo da (euskal jakiak, makilak eta txalapartak salgai...); San Nikolas plazan, bertsolariak, trikitilariak eta umeentzako jolasak antolatuko dira. Plan ederra!

• **Non:** Algorta • **Noiz:** irailak 24 • **Ordua:** egunean zehar

eta 22:30. Sarrerak: 15/12 euro.

Irailak 16, barikua. 19:30.

### LEIOA

► **Solo Mediterraneo.** Maracaibo Teatro konpainia. Kultur Leioaren I. urteurrena. Errekalde plaza. Irailak 23, barikua. 22:00.

## MUSIKA

### ERANDIO

► **V. Musikale.** Nazioarteko Kale Musikarien topaketak. Naft eta Bagad Bro Kemperle taldeak. Altzaga.

► **V. Musikale.** Nazioarteko Kale Musikarien topaketak. Funk Off, La panda de Verdiales eta Bigodes Band taldeak. Astrabudua. Irailak 17, zapatua. 12:30. Trikileku, Naft eta Bagad Bro Kemperle taldeak. Altzaga. Irailak 17, zapatua. 19:30.

► **V. Musikale.** Nazioarteko Kale Musikarien topaketak. Amama Luisa Brass Band, Jo Bithume eta Clan An Drumma taldeak. Altzaga. Irailak 18, domeka. 12:30. Kalimbaõ, La Banda

de la Maria eta Sergents Peperes taldeak. Astrabudua. Irailak 18, domeka. 18:00.

### LEIOA

► **V. Musikale.** Nazioarteko Kale Musikarien topaketak. Herriko kaleetan zehar. Irailak 16, 17 eta 18.

## BESTEAK

### GORLIZ

► **XIV. Mountain Bike Gorliz.** Kiroldegitik mendira. Irailak 18, domeka. 09:30. Umeen irteera ordua: 11:00.

► **Euskaraz olgetan.** Umeentzako jarduerak. Iberrebarri. Irailak 22 eta 29, egunak. 18:00-20:00.

► **Tokiko Ondarea, hitzaldia.** Maria Jose Torrecilla. Erakusgela. Irailak 29. eguna. 19:00.

### SOPELANA

► **Barinatxeko lasterketa nudista.** Barinatxe hondartza. Irailak 17, zapatua. 11:00.

### URDULIZ

► **Euskaraz olgetan.** Umeentzako jarduerak. Lehendakari Agirre plaza. Irailak 21 eta 28, eguaztenak. 18:00-20:00.

### BERANGO

► **Nazioarteko XVIII. Milia.** Urriak 1, zapatua. 16:30. Izena emateko: 94 668 00 08

### PLENTZIA

► **Kilometroak 2005, irteera.** Aramaio, Aretxabaleta, Arrasate, Eskoriatza, Leintz Gatzaga. Urriak 2, domeka. Prezioa: 8 euro.

► **Nafarroa Oinez 2005, irteera.** Ziordia, Olazti, Altsasu eta Urdiain. Urriak 16, domeka. Prezioa: 8 euro.


# aldai

TAPIZTEGIA  
DEKORAZIOA  
ERAKUSKETA  
ETA TAIERRAK

Basagoiti etorbidea 32  
Tf: 460 90 31  
48990 ALGORTA

# Q V S

20 ANIVERSARIO  
URTEURREN



KLIMATIZAZIO

INGENIARITZA

INSTALAZIOA

MANTENIMENDUA

Otxandategi tar Simon 114

48640 Berango, Bizkaia

tel. 94 668 15 51

Taxa. 94 66829 92

e-mail: vasa@euskalnet.net



## ADITUAK GARA PINTXO ETA BOKATA BEROETAN!!!!

BASAGOITI ETORBIDEA 51  
ALGORTA

[albuma]



# Getxo Folk

Ohikoa den legez, irailaren lehenengo aste-akabuan ospatu zen Areetan Getxo Folk jaialdia. Aurtengoa, gainera -ez da ahuntzaren gauerdiko eztula- XXI. edizioa izan da. Ia 50.000 lagun bildu ziren Getxora munduko bazter askotatik etorritako musikaz goatzera. Han Sharon Shannon (goiko argazkietan) irlandarrak, Indiako Malkit Singh-ek edota Olodum talde brasildarrak jo zuten, besteak beste. Gauza gehiago ere egon ziren Getxo Folken: azoka, erakustaldi gastronomikoa...

Argazkiak: **Asier Mentxaka**



Bizkaiko Zubia da Uribe Kostako, Bizkaiko eta Euskal Herriko ikur nagusietako bat. Haren itzalean, baina, bada- go askoz lehenagoko tradizio bat, zelan edo halan garai barriari aurre eginez. Ontzia da, edo gasolinoa, gurago duzuen moduan. Hiru mendetik gorako historia daukate Ibaizabalen alde batetik bestera jendea daren ontziok; asko egon ziren garai batean, baina apurka-apurka gehienak desagertu dira, negozioari eutsi ezinik. Gaur egun linea bik baina ez dute irauten, biek ere Uribe Kostan (eta Ezkerraldean, jakina). Diotenez, euren etsai nagusia ez da Bizkaiko Zubia, metroa baina. Ontzira joan gara geu ere oraingoan, itsasadarra paraje-parajetik ikustera.

# Biziraupen ariketak

## Ibaizabaleko ontzien etorkizun iluna

Testua: **Unai Brea** / Argazkiak: **Asier Mentxaka**

### Ordutegi latzak

Areetako gasolinoko beharginek, negozioari eusteko zailtasun itzelez gain, ordutegi nahiz egutegi gogorak ere jasan behar dituzte. Diotenez, bost urte inguru daroet opor barik, eta egunero ordu mordo egiten dute beharrez. Gainera, urteko egun guztietan emoten dute zerbitzua. Lantzean behin egunen bat libre hartzen dute, baina lankideren batez tratua eginez. *“Nonor gehiago hartu genezake lanerako, bai, baina orain gazteek ez dute goizeko lauretan ohetik altxatu gura”*, dioskue.



Juanma Hernandez, Portugaleteko Ontzi-gidari Elkarteko gerentea

**Betidanik ezagutzen** dugu Bizkaiko Zubia, ehun urtetik gora dauzka eta. Baina itsasadarrean bada go hura baina gauza “betikoagorik”: ontziak. 300 urte baino gehiago dira lehen ontziak Ibaizabaleko alde batetik bestera jendea erosten hasi zirela; hamahiru ibilbide ere egon ziren (Bilbon ere batzuk), baina arrazoi desberdinek desagertu erantz bultzatu zituzten. Zubiak eraiki ahala, esaterako, Bizkaiko hiriburuko asko kendu zituzten, zeregin barik ordurako.

Begira diezaiozun gure eskualdekoari, baina. Garai oparagoen lekuko geratu diren azken hiru gasolino-lineak Uribe Kostakoak dira, izan ere. Bata, Lamiako-La Iberia ibilbidea egiten zuena, orain hiru

egin, abuztuan oporrak eduki dituzte eta.

Linearik sendoena Bizkaiko Zubiaren ondo-ondoan egoteak frogatzen du etsaia ez dela zubia. Gainbeheraren hasiera industriaren krisialdiari leporatu ahal zaio; gainbehera horrek azken urteotan okerrera egin izana, metroak Ibaizabalen ertz biak elkartzeari. *“Barakaldora ailegatu orduko igartzen hasi ginen. Ez genuen uste hala izango zenik, baina...”*, dioskue. Egoera are txarragoa da metroa Sestaora heldu denetik, eta ontziaren arduradunak -lau bazkidek osatzen dute enpresa- guztiz beldur dira orain, lanak Portugaletera eta Santurtzira ailegatutakoan zer gertatuko zain.

Eskerrak eurentzat bezero fidelak dituztela. Batzuek ohiturei eusten diete eta,

### «Metroak itsasadarraren ertz biak elkartzeak gainbehera areagotu du»

urte desagertu zen. *“Irabazten genuena baino gehiago gastatzen genuen”*, diosku Juanma Hernandez Portugaleteko Ontzi-gidari Elkarteko gerentea. Enpresa hori da, hain zuzen, oraindik ere Areetan eta Portugaleteren arteko bidaiari eusten diona, Bizkaiko Zubitik metroa gitxira. Historiari eusten dion beste ontzia Erandiokoa da, baina hori beste enpresa baten esku dago. Zoritxarrez, ezin izan dugu eurakaz berbarik

auskalo zergatik, ez dute gustuko zubia. Ontzia arinago dabilelako beharbada (hori du abantaila nagusia). Eguraldi txarra dagoenean, ordea, fidelitasuna ez da hainbestekoa. Arinago bai, baina sabairik ez... Bestalde, prezioa berdina daukate biek, ontziak eta zubiak: 25 zentimotan bidaiaria. Akordio halakoa daukate, igotzekotan biek batera igotzeko. Baina ezin 26 edo 27 zentimotan ipini, bidaiariari buruhauste ge-



Prezioa berdina daukate biek, ontziak eta zubiak: 25 zentimotan bidaiaria



hiegirik ez sortzearen. Beraz, inflazioak bere bidea jarrai dezan itxaron behar dute, urteren batean txartela 30 zentimotan ipini ahal izateko. *“Bitartean, guk ordaindu beharrekoak urterik urte igotzen dira”*, kexu da Juanma Hernandez.

bestera -*“batzuetan nonor etortzeko begira egon behar dugu”*-, eta jende gehien dabilen orduetan bi ipintzen dituzte. 40 urtez ontzi-gidari ibilitako Angel Orivek gogoratzen duenez, *“hemen, garai batzuetan, hiru ontzi ipini behar izaten genituen ordu jakinetan,*

### «2.000 bidaiari inguru daukate eguneko, zer ikusirik ez lehengo behargin oldeakaz»

2.000 bidaiari inguru daukate eguneko. Zer ikusirik ez garai batean alde batetik bestera zihozten langile oldeakaz. Behinolako zazpi ontzietatik, lau geratzen zaizkie orain. Eta horiek jaten dute, gainera, irabazien zati handi bat: *“Urtero margotu behar dira, eta inspektzioa gainditu”*. Orain, jeneralean, bakarra ibiltzen da alde batetik

*eta hirurak zihozten jendez ondo beteta”*.

Orain dela hilabate gitxi hartu du Orivek erretiroa. Horixe izango da gasolinaren bidea hemendik laburrera? Azken ontzi-gidariak aitortu digutenez, Kantauriko afruntua baino ilunago ikusten dute etorkizuna. Honelakoxea da “aurrerapena”... m

## Euskal Herria, aukera dotorea

Gasolino ez eze, Portugaleteko Ontzi-gidari Elkartek beste zerbitzu bat ere eskaini du azken zortzi urteotan: Euskal Herria ontzia. Kepa Do Santos, enpresako bazkideetako bat, dugu bertako kapitaina, eta berak emon digu ontziaren historiaren barri: *“Tarragonan erosi genuen orain dela bederatzi urte. Salou-Cambrills ibilbidea egiten zuen, eta artean Vanguard zeukan izena. Geuk ipini genion orain daukana”*. Momentuz, baina, mailegu eta konponketek euren gaitasun dute ontziak emoten dituen etekin guztiak.

### «Ontziak Ezkerraldeko jendea Getxoko hondartzetara erotea du zeregin nagusia»

Euskal Herriaren zeregin garrantzitsua -lehen gasolinokaz egiten zena- Ezkerraldeko jendea Getxoko hondartzetara erotea da. Egunean hainbat bider, Sestaotik abiatu, Portugaleten eta Santurtzin gelditu, eta Algortako Kirol Portuan uzten du zama. Alderantziz ere bai, etxera itzultzeko garaian. Zerbitzu hori ez dute urte osoan zehar eskaintzen, ordea. *“Aste Santuan hasten gara”*, diosku Do Santosek, *“eta hortik uztaileko aste-akabu guztietan jarduten dugu. Uztailean eta abuztuan egunero, eta irailean atzera aste-akabueta bakarrik”*. Gainera, ibilbideak eskaintzen dituzte itsasadarrean zehar, enkarguz. Horiek bai, urte osoan.

[www.turismoriabilbao.com](http://www.turismoriabilbao.com)



Euskal Herria ontzia Ibaizabalek behara



GETXOKO KIROL PORTUA, 2003

## Jostailuak

Juan Luis Markaida

Jolastea atsegin hartuta denbora pasatzea da. Nagusiei, gazteei... guztioi gustatzen zaigu jolastea. Eta ezinbestekoa ez bada ere, sarritan jostailuak erabiltzen ditugu olgetarako. Azken batean, pertsona helduen eta umeen artean dagoen alde bakarra euren jostailuen prezioa da.

[berbetan]

Uztailean hiru bider eduki genuen Andoni Egaña Algortan. “*Sarritan joaten naiz, urtean bizpahiru aldiz gutxienez, beti bertsotan*”. Igarri egiten da, bai, zarauztarrak ALBE bertso eskolagaz daukan harreman ona. Hein berean harritu eta poztu gaituen zeozer esan digu, gainera: “*Beharbada Getxo izango da urtean saio gehien antolatzen duen herria*”. Hala bada, ez da harrizkoa lantzean behin gure artean edukitzea Egaña, zenbaitzuren ustez sekula izan den bertsolaririk onena. Gu ez gara, badaezpada, hainbeste esatera ausartuko, ezezagutzagatik batetik eta subjektiboegiak ez izatearren bestetik, baina ukaezina da Andoni Egañak ondo merezita bereganatu duela txoko bat bertsolaritzaren historian. Eta bertsoez jardun dugu, jakina, txapeldun handiagaz, baina ez horretaz bakarrik; azken boladan askoren ahotan dabilen Euskararen Kalitatearen Azterketa ere eduki dugu berbarako aitzakia, bera da-eta egileetako bat.

# Andoni Egaña

## Kalitate labelagaz

Testua: **Unai Brea**

—Inoiz entzungo zenuen zeu zarela historiako bertsolaririk onena...

—Nik ez dut horrela planteatzen. Nire nahia urte batzutan maila onean aritzea da, besterik gabe. Bertsolaritza oso prozesu naturala izan da niretzat: 18 urterekin ezagutzen nuen, baina kirola egiten nuen, estudiatu eta abar; 19 edo 20rekin konturatu nintzen nahiko erraz egiten nuela bertsotan, eta abiatu egin nintzen. Gero suerrea izan dut, hori ere egia da.

—Ez dugu argitu, beraz, zeu ete zaren historiako bertsolaririk onena, baina, gaur egungoa da historiako bertsolaritzarik onena?

—Zaila da esaten, ez dugulako dena eza-gutu. Txirritari buruz, adibidez, denek hitz egiten dute, baina haren bat-bateko produkzio gutxi gorde da. Eta ez da eza-guna. Dena dela, gaur egungo bertsogintza oso osasuntsu dagoela ez daukat batere dudarik. Badaude oso maila oneko 20, 30 edo 40 gazte.

—Josu Goikoetxeak zioen asko igarri dela azken urteotan gazte eskolatu asko sartu dala bertsolaritzan, lehengoak base-rritarragoak izaki...

—Ez dakit lehen baserriaz hitz egiten zen, baina uste dut bertsolaritza beti izan dela eta izango dela nagusiki bi zutabetan oinarritzen den zerbait: batetik tradizioa eta bestetik sormena. Orduan, garai batzuetan tradizioak pisu gehiago hartzen du, eta

**“Gaur egungo bertsogintza oso osasuntsu dagoela ez daukat batere dudarik”**

besteetan sormenak. Orain gazte eskolatuak daudela? Ematen du, hala esatean, gazte horiek gizartetik kanpo dauden norbaitzuk direla, eta ez da hala, jende normala da beren gizartean. Lehen bertsolariak beren gizartean normal-normalak ziren bezala. Eta gainera, asko jakitea ez da oso ona bertsotarako, e?

—Ez ala?

—Ahozkotasanak, nagusiki, ez dauka zerikusirik edukiekin, jakinduriarekin. Edozein aiton-amona hizketan entzuten dugularik, konturatzen gara askotan jariora dela, hain zuzen, gabeziak ezkutatzeko modurik zaharrena (eta politena). Jakinduria-gabeziak, e? Gure amonak gehiago hitz egingo luke Demi Mooreri buruz, haren argazki bat emanez gero, neuk baino. Gure amonak ez dakielako ezer, eta

badakielako “ezer ez” hori jantzi egin behar duela. Eta gai da hamar minutuz hitz egiteko Demi Mooreri buruz. Eta nik badakit pixka bat Demi Mooreri buruz, baina ez askorik, beraz nire *rolloa* hogeitasegundokoa izango litzateke. Uste dut jakinduriak ez daukala zerikusirik komunikazioarekin, bertsolaritzarekin, ahozko ekimenarekin. Horregatik, bertsolari bat





berdin-berdin izan daiteke arotza edo topografoa. Kontua da bere bertso uni- bertsoa, bere irudimen unibertsoa eta bere tradizio unibertsoa lantzea, eta hori berdin egiten dute igeltsero batek eta kazetari batek.

—Oholtza gainean lasai itxura ematen duzu...

—Lasaia? Uste dut urduria naizela, kei- nuetan, gauza txikietan... Geldi egoten ez naizenetakoa naiz. Baina beharbada au- sarta naiz gauza inportanteetarako, eta ho- rrek patxada handia ematen dit. Gauza handietan ez naiz hain urduria.

—Eta urduriago jartzen zara belodromo- an, finalean, edozein herri txikitako saio- an baino, edo berdintsu?

—Belodromoak halako parafernalia iza- ten du inguruan. Bi hilabete lehenago hedabideak hor ari dira, jendetza, telebis- ta kamerak gainean... Normala da urdu- ritasuna egotea hor. Baina herri txikietan ere, oholtzara igo behar den momentuan, beti jartzen zara urduri, edo kezkatuta. Zuk bota behar duzu sermoia, eta kezka- tzen ez bazara ez zaizu ona irtengo.

—Beste bertsolariez ez duzu jakingo, eta ez dakit zuri ere halakorik jazo zaizun, baina gaia emon eta gero pare bat minu-

tu hasi ezinik zaudetenean, isil-isilik, zer igarotzen da burutik?

—Normalean ezer ez. Gaia jarri dizutene- an, eta pentsatzen ari bazara, pentsatzen ari zara. Ni behintzat ez naiz *in albis* gera- tzen, edo ez dut pentsatzen “a zer erridi- kulua egin behar dudan!”, edo... Lanean ari naiz eta horretan dut burua. Beste edo- zein pentsamendu galgarria litzateke.

—Baina inoiz gertatuko zen, “demonstre, ez zait ateratzen!”, pentsatzea...

—“Ez zait ateratzen!” baino, “a ze gaia!

## “Ahozkotasunak, nagusiki, ez dauka zerikusirik edukiekin, jakinduriarekin”

Zer esan behar dut nik horretaz?”. Baina lehenengo bost segundotan gertatzen da hori. Gero lanean jartzen zara. Ikusleak han daude eta zerbait bota behar duzu, ona, erdipurdikoa edo txarra.

—Bertso txapelketetan subjektibo sama- rra da puntuazioak emateko sistema. An- doni Egaña izena edukiteak lagundu egi- ten du?

—Alderako izan daiteke, baina kontrara- ko ere bai. Zerbait espero da zutaz, eta betetzen ez baduzu...

—Nor ikusten duzu zure ondorengotzat? —Belaunaldi bat izango da, eta belaunaldi horretako zutabeak zeintzuk izango

ratutako Euskararen Kalitatearen Az- terketak. Sekulako kezka dago gai ho- rregaz, ezta?...

—Badirudi baietz, hau atera genuen eta toki askotatik deitzen digute hitzaldiak emateko. Kezka dago, bai.

—Uste dut mundu guztiak dakiela honezkerok, edo behintzat euskararen mundu honetan gabiltzan gehienok bai, kontzeptu hirukote ezaguna: euskara zuzena, jatorra, egokia... Zein da, azke- nean, euskara ona?

—Hirurak aldi berean beteko lituzkeena. —Baina zuzentasuna ez ei da beti beha- rrezkoa, zuek diozuenez...

—Bai, euskara ona izateko zuzena izan beharko litzateke, eta egokia, eta jatorra.

—Zuek, hala ere, egokitasunaren balioa azpimarratzen duzue...

—Bai, gauden bezala egonik, iruditzen zaigulako gehiegi kezkatu gaituela zuzen- tasun soilak, bai irakaskuntzan, bai gura- soengan, bai hedabideetan... eta egokita- suna ahazten zaigula. Hala balitz, euska- rak zuzena izan beharko luke beti, baina ezin da, gure hizkuntzaren egoera oso berezia delako. Eta behingoz esan beharko

## “Gauden bezala egonik, gehiegi kezkatu gaitu hizkuntz-zuzentasun soilak”

diren garbi daukat: Bizkaian Elortza eta Iturriaga, Gipuzkoan Lujanbio, Maia, Irazu eta Mendiluze, Iparraldean Arzallus eta Colina... Oso maila altuko hamar bert- solari badaude, eta gure ondorengo lana horiek egingo dute. Txapelketetan, ez dakit. Seguraski kosta egingo zaio norbaiti txape- lak segidan irabaztea, hamar horien maila oso antzekoa delako hain zuzen.

—Bertsolaritza albo batera utzita... Pro- tagonismo handia lortu du Kike Amo- narrizek, Joxerra Gartzia eta zuk plaza-

da Arrasateko batek bere euskalkian hitz egiten badu, non ari den begiratu beharko dela. Eta herriko telebistan ari bada, eus- kara hori egokia da, eta ETBn ari bada ez dakit. Hizkuntza bati beti begiratu behar- ko diogu zein duen helburua eta helburu hori definitzerakoan beti kontuan hartu beharko dugu nor ari den, nori ari zaion, zer gairi buruz eta abar. Horrek ikuspegia konplikatzen du pixka bat. Baina guk dio- guna zera da: zuzentasun soilatik ez goa- zela inora.

—Gure eskualde honetan, hain zuzen, kezka handia dago euskararen kalitatea- gaz. Hemengo euskaldun askoren ohiko berbakuneak dira “gaur goizean kalean ikusi dizut”, edo “zapata batzuk erosi naiz”. Halakoak hiru multzo horietako batean sartzen dira?

—Ikusi beharko litzateke nor ari den, nori ari zaion eta zer helbururekin.

—Izan ere, esaldi horiek euskara egoki- tzat jo ditzakegu komunikatzeko balio duten heinean, ala ez?

—Ez, komunikatzeko balio duena ez da beti egokitzat jo behar. Ikusi beharko da zer eskualdetan den, zein den jende horren adina, alperkeria hutsez egiten duen edo hobeto egiten dakien eta bere maila jaitsi nahi duen besteek bezala egite-

ko... Gauza asko ikusi beharko lirateke ezer epaitu aurretik. Euskara ikasten ari den bat bada, eta “nik ikusi dizut” esaten badu, garbi dago euskara hori erdara baino hobea dela. Ikuspegi hori ere alda- rrikatu egiten dugu. Bestela gaizki goaz.

—Hala ere, neurriak hartu beharko lira- teke halakoak hobetzen joateko?

—Bai, noski, baina kontuz ibili behar da zuzenketekin, eta zuzentzeko modua- kin. 30 urte daramagu “nik ikusi zaitut” dela esaten, eta lortu ez badugu zerbaiten- gatik da. Seguraski “ikusi dizut” esaten duenak euskara zerbait normatiborekin lotzen du, zuzen egin beharreko zerbaite- kin, eta paso egiten du txapa horretaz.

—Tresna eta argitalpen asko kaleratu da azken boladan euskaraz hobeto egiteko:

*Euskarazko prosa gaur, Euskararen sen- dabelarrak, Euskara batuaren ajeak... Emoten du oso txarto egiten dela euska- raz...*

—Uste dut horiek onak direla profesio- nalentzat, baina hiztun arruntei bost axola zaie. Askoz ere garrantzi handiagoa dauka, gaur egun, halakoek baino, *Basetxea* telebistako programan aukeratzen dituzten parte hartzaileek euskara maila txukuna izatea. Azken batean gure gazteek horiek ikusten dituzte. ETBn esatari onak daude, baina telebistan den- bora gehiago ematen dute hizketan jende anonimoez, eta horiek euskara maila traketsa baldin badute, eredu tra- ketsak ematen ari gara, nondik eta tele- bistatik. <sup>m</sup>

## ALBEk Egañari

Doinua: Munduko ilunabarra

Barru beradun harria,  
begirunezko irria,  
ezten gozoko zorria,  
haur nagusi bihurria;  
Andoni, lagun, ALBE da orain  
zuri bertsotan jarria,  
eskertu guran Uribe Kostan  
utzi duzun ekarria;  
zenbat alditan asetu duzun  
gure bertso-egarrila!  
Biribiltzeko, Andoni, zure  
faboreko aldarria,  
adjektibo bat sortuko dugu:  
zeu zara klonagarria! (bir)

ALBE Algotako Bertsolari Eskola

## aldizkaria etxean jaso nahi baduzu

HARPIDETZA > bete azpiko fitxa eta guri bidali

Izena.....Deiturak.....  
Kalea & zenb.....Herria.....  
e-mail.....Telefonoa.....

Urtero  20 euro  30 euro  50 euro  beste kopuru bat ..... euro  
Kontu zenbakia (20 digito).

OOOO OOOO OO OOOOOOOOOO

UK Uribe Kostako Aldizkaria

171 posta kutxa / 48991 Getxo / uk@aldizkaria.biz  
tel.: 94 491 13 37 / faxa: 94 491 58 31



AXERROTA, 2005eko UZTAILAREN 25a

# Aixerrota, 2005-07-25

Denok dakizuen moduan, aurten urrezko ezteiak ospatu ditu Getxoko Itxas Argia taldeak antolatzen duen Paella Egunak. Uda aurreko UKn, azken 50 urte hauetako argazki batzuk ekarri genituen orrialdeotara. Zenbaki honetan, urteurren honen testigantza irudietan jaso eta zuenganatu gura izan dugu ospakizun berezi hau borobiltzeko.

Argazkiak: **Jose Mari Martinez "Bubu" & Asier Mentxaka**









glu glu

18

Texto teatral de **GALDER PEREZ y ELOI BEATO.**  
 Dirección: **ELOI BEATO**

Basado en el programa radiofónico "Cocidito madrileño" de **JAVIER VIZCAINO** en radioeuskadi

10 sarrera zozketatzen ditugu UK-ko harpidedun artean!  
 Deitu eta izena eman! 94 491 13 37

**Getxo Antzokia**  
 Irailak 23 eta 24  
 20:00 eta 22:30

# cocidito

## MADRILEÑO

**GALDER PEREZ RAMÓN CASTRO**  
**GORKA AGINAGALDE GURUTZE BEITIA**  
**JOSEAN DE MIGUEL**

glu glu  
 ocerio  
 DEIA  
 UK  
 CONTRATAción: 94 412 48 01 www.glugluproducciones.com info@glugluproducciones.com

## zineeskola

Oskar Fernandez

## Nazioarteko zinemaldiak

Mundu osoko zinemaldietan A kategoria mailarik garrantzitsuena da. Kategoria edo maila hau dutenak lau baino ez dira. Urtean zehar lehenengoa Berlinen egiten da; bigarrena, Cannesen; hirugarrena, Venezian; eta laugarrena, Euskal Herrian, Donostian irailaren hamabost eta hogeita lau bitartean. Donostiako Nazioarteko Zinemaldia, zinema gustatzen eta estimatzen duten guztientzat, ikusleho erraldoia izaten da. Hemendik oso hurbil dugu Donostia, eta beraz egun bat edo gehiago hiri paregabe horretan egiten den zinemaldian murgiltzea oso aukera ederra da. Hiriak hamar egun horietan beste modu batez egiten du arnasa. Filmak ikusteko aukera oso zabala eta aberatsa izango dugu. Hori bai! hara joateko asmoa baldin badugu sarrerak alde aurretik ateratzea ezinbestekoa da. Horretarako aukera desberdinak daude: telefonoz, Internetez, Gipuzkoako Kutxaren bidez... Informazio guztia zinemaldiaren webgune ofizialean dago: [www.sansebastian-festival.com](http://www.sansebastian-festival.com)

Aurtengoa berrogeita hamahirugarren edizioa izango da, eta betiko legez atal desberdinak egongo dira: Sail Ofiziala, Zabaltegi, Horizontes Latinos, Belodromoa, Euskal Zinearen Eguna, besteak beste. Zabaltegi oso atal interesgarria da, baita garrantzitsuenetarikoa ere. Nazioarteko gainerako zinemaldietan parte hartu duten filmak nahiz film arrakastatsuek ikusteko aukera ere badago: Berlinen egondakoak, Cannesen, Venezian... Zinema zain dugu Donostian, aprobeitza dezagun. 4

## Serra pantaila handian

Labean dago **Koldo Serra** algortarraren lehenengo film luzea

**El bosque de las sombras** bere lehenengo film luzea joan berri den abuztuaren hasi zen grabatzen Koldo Serra. Monfort eta Filmax etxeek ekoiztiko duten filmaren irudiak Euskal Herrian grabatu ditu algortarrak, ingelesez eta gazteleraz. 30 urtegeaz heldu zaio Serrari film luzea egiteko aukera, gazte-gaztetik film laburretan jorratutako lur emankorren hazi da azkenik arbola. Gainera, arbola izale-fruita preziatuak erakartzea lortu du: Aitana Sanchez-Gijon eta itzal handiko Gary Oldman ingelesa. Nonork Oldmanen aurpegia bururatzeko zailtasunak baleuzka esan Sex Pistoleko Sid Vicious antzestu duela (*Sid and Nancy*), Sirius Black (*Harry Potter*), Lee Harvey Oswald (*JFK*), *El Quinto elemento*-ko protagonista... Hauxe gain Lluís Homar, Virginie Ledoyen eta Paddy Considine aktoreek ere dihardute filmean.

## «Gary Oldman eta Aitana Sanchez-Gijon zuzendu ditu Serrak»

Filmaketa lanetan zentsu denak ke dariela dabil Serra eta ezinezkoa egin zaigu beragaz berba egitea. Ostera, Unai Break UKrako egindako elkarrizketan algortakoak aurreraturiko hitzak datozkigu gogora:



Argazkian, Koldo Serra

“Oso filmaketa gaxa izango da: mendian, euriagaz, basa asko... gogorra guztiontzat”. 70. hamarkadan girotuta dagoen film honek inkomunikazioaz dihardu. Bolada txar bat jasaten dabilen bikote batek lagun batzuen etxean (Oldman eta Sanchez-Gijon) oporralditxo egitea erabakitzen du. Baina hain beharrezko daukaten lasaitasun egunak indarkeriaz beteko zaizkie. Serrak UKri esan legez, “bortizkeria handia egongo da, psikikoa batez ere”.

*El tren de la bruja* film laburragaz lortutako arrakasta ezer gutxi izan bedi *El bosque de las sombras*-enagaz alderatuz gero. Zorte on! m

## Ez galdu &gt; Evil



Suedian egindako film honen jatorrizko izenburua *Ondskan* da eta zuzendaria Mikael Hafstrom. Suediako Film Akademiak pelikula hau aukeratu edo izendatu zuen Oscar sariaren banaketan parte hartu ahal izateko, ingelesez eginda ez dauden filmen atalean hain zuzen ere. Film honek sari asko jaso ditu, beste batzuen artean, Miamiako jaialdiko ikusleena. Belaunaldien arteko drama da eta garatzen duen istorioa Jan Gillouk idatzitako eleberriri batean oinarritzen da, nolabait biografiakoa dena. Berrogeita hamargarren hamarkadan kokatzen da eta protagonista mutil gazte bat da, Erik. Bere bizitza oso lazgarria da; etxean aitaordearengandik jipoi izugarriak jasotzen ditu amak, egoera horretatik ihes alde egiteko asmoz pianoa jotzen duen bitartean. Eskolako egoera ez da hobea izango eta Erik arazoei aurre egiteko ezagutzen duen baliabide bakarra, bortizkeria, erabiltzen du. Ikastetxe publikotik kanporatua izango denean gauzak aldatzen hasiko dira.

## Tango doinuak eskualdean

Sopelan bizi den **Leonardo Alonso** buru duela, Lunfardo taldeak tangoz betetako diskoa dakargu: **A vos ciudad**

Argazkian, Leonardo Alonso. Harremanetarako: 667 519 153 / [www.lunfardotango.com](http://www.lunfardotango.com)

**A vos ciudad** da Lunfardo taldeak erditu duen lehengo lana. Tango taldearen gitarra, ahots eta gidaria den Leonardo Alonsori aspaldidanik zebilkion buruan taldea osatzeko ideia: “Proiektu honetarako musikariek prestakuntza akademiko sakona eduki behar zuten, tangoa interpretatzeko goi mailako musika ikasketak beharrezkoak dira-eta; horrela, Lunfardo osatzen duten maisuak aurkitu nituenen sortu zen taldea”. Getxo Folken eman zuten lehen kontzertua 2003an eta aurtengo ekainean

aurkeztu dute Bilbori eskainitako diskoa.

Argentinarrak urte asko daroaz gurean bizitzen, lehenengo Algortan eta gaur egun Sopelan, eta taldeko musikariak ere euskal lurretan aurkitu ditu: Julio Andrade, Donostian bizi den Venezuelako itzal handiko kontrabaxu jolea; eta esku soinuaren maisu den Barakaldoko David Sainz. Momentuz, esku soinua bandoneonaren (tango musika tresna) doinura jotzen du Sainzek, baina ziu-reenik laster bandoneonagaz ere ahalegintzea.

Zuzenekoetan hirukoteak musikari gonbidatuak izaten ditu: Jose Luis Canal pianoan eta Jon Crespo biolinagaz. Ikuskizuna borobiltzeko, Lunfardoren doinura tango dantzari bik, Marcelak y Marcelok, Buenos Airesera bertara garamatzate.

Alonsok dioenez Lunfardo zera da: “Tangoaren hastapenetan Rio de La Platako urbazterretako biztanleek zerabilten berbek, temati-

## «Tangoaren Munduko Goi Bileran Euskal Herriko ordezkari izango dira»

kak, berbakerak... osatzen duten hizkuntza; tangoa berez da hizkuntza, eta jotzean geuk ere hizkuntza propioa darabilgu”.

Diskoak garai guztietako tangoak batzen ditu: “Jendeak aspaldiko tangoa ezagutzen du, geuk onaingo tangoa ere ezagutzen gura dugu; tangoa bere kolore denakaz, berriua baina sustriak galtzen ez dituen”. Gardelen kanta eza-gunak, instrumentalak, Bilbori eskainitako lehen tangoa... eta euskarazko bat ere badago: “Bermeotar baten ‘Zortzi Papardo’ olerkia, eta ‘A media luz’ tangoaren errima dauka argentinaren eta euskaldunen arteko harreman sakona islatzeko”. Taula gainetik jaitsi barik ibili dira eta Lunfardoren tangoa ez da amaituko: 2007an Txilera, Tangoaren Munduko Goi Bilerara joateko hautatu dituzte, Euskal Herriko ordezkari. m

## diskoak

**Employment**  
Kaiser Chiefs  
Universal Records



Ingalaterrako Leeds hiriko boskoteak bere lehenengo diskoarekin denon ahotan ibiltzea lortu du. Momentuko taldea dela esaten dute adituak eta aldizkari espezializatu askoren azalak betetzen dabilza. Franz Ferdinand edota The Futureheads taldeen soinua gogora ekarriko dizute disko honetako kanteak, mod doinuen hurbil ere badaudenak.

**Concrete Mixer**  
Atom Rhumba  
Munster Records



lazko diskorik onenetakoa izan zen bilbotarren *Bacbone ritmo*. Orain itxuraldatuta dator kigo disko hurra, izan ere, hainbat disko jartzaile, musikari eta ekoizleren galbahetik pasatu dituzte kanta haiek. Besteak beste Kaki Arkarazo, Xabi Erkizia, Manta Ray, Jabí Letamendia, Anai, Jostxo (Los bichos) edota Javi Pez bilbotarren kanten bertsoiak batu dituzte disko honetan.

**As soon as possible**  
Asstrio  
Errabal Jazz



Talde hau osatzen duten kideak musikari gazteak dira, Bartzelonako biztanleak, eta Estatuako klub ospetsu askotatik pasatakoak. Benetako groove eta funk-jazz gaindosia eta erreperitorio leherkaria aurkezten dute, ezustekoan kutxa, eta bertan, bere konposizioez gainera, Beatles, Stevie Wonder edo Duke Ellingtonen gaiak aurkitu ahal izango ditugu, berriki osatutako bereziarekin.

etorri  
eta  
ikusii!!

**ORIXA**  
liburudenda

Alangoeta 8 (Euskal Herria kalearekin bat)  
Tfn.: 94 491 23 79  
Algorta

## Basolanak

- Zuhaitzen landaketa
- Podak
- Itxierak
- Garbiketak
- Tratamendu fitosanitarioak

Lorategien zainketa  
**DEITU!**



T. 94 467 17 13 / F. 94 467 42 41  
ERANDIO (Bizkaia)  
Mobila: Asier: 629 411 838  
e-posta: basolanak@terra.es

**Taberna Berri**  
Sarikobaso 4 - ALGORTA  
Tf.: 944 306 493

Zure publizitatearen haren  
Zure publizitatearen haren  
Zure publizitatea haren

94 491 13 37

[liburuak]

## On Kixoteren itzulera

Cervantesen obraren harira aita Berrondok egindako euskarazko itzulpena argitaratu dute

**Miguel de Cervantes Saavedrak** idatziriko *Don Quijote de la Mancha* ospetsuak lauhun urte bete dituela eta, hamaika ospakizun antolatu dira aurten. Horrelako hitzordu batean, jakina, ezin ziren urteekin egin diren bertsio zein itzulpenen berrargitalpena falta, euskaraz egindakoak barne. Hain zuzen, Pedro Maria Berrondo apaizari zor diogu Kixoteren abenturen euskarazko itzulpena. Berrondok iragan mendeko 60. hamarkadan ekin zion Cervantesen obra euskaratzeari, eta bi liburukitan kaleratu zuen, 1976an bata eta 1985ean bestea, Itxaropena argitaletxearen eskutik. Orain, Kixoteren mendeurrenaren harira, Ereinek, Euskal Herriaren Adiskideen Elkartearen laguntzaz, berriro argitaratu du Be-

**«Berrondoren itzulpenean oinarrituta bertsio laburtua ere kaleratu dute»**

rrondoren obra. Gainera, abadearen itzulpenean oinarrituta Patxi Ezkiagak eginiko bertsio laburtua kaleratu dute aipatu bi erakundeek.

Baina Berrondo ez zen Cervantesen lanari heldu zion euskaldun bakarra. Lehengo hortxe aritu zen Serafin Baroja,



Miguel de Cervantes Saavedra

XIX. mendearen hondarretan, Kixoteren gora-beherak euskal irakurleari gerturatzen. Alabaina, bere lanaren alerik ez da guregana iritsi. Haren ostean Julian Apraizek liburua zati bat euskaratu zuen, 1905ean. Eta ezin ahantz genitzake gerora ere etorritako saiakerak, zeinen protagonistak izan ziren Duvoisin kapitaina, Pablo Zamarripa, Lizardi, Orixe, eta Gabriel Aresti bera. Poetak Kixoteren lehen zortzi kapituluaren itzulpena paratu zuen, eta hortxe utzi zuen lana. Susa argitaletxeak 1986ko abenduan argitaraturiko Arestiren lan guztien bildumaren hamargarren liburukian aurki daiteke Barakaldokoaren bertsioa. <sup>m</sup>

liburuak



**Poetikak & poemak**  
Askoren artean  
Erein

Zer da poesia? Zer funtzio du? Zerk egiten du poema bat on? Horrelako galderari eta beste hainbati erantzuten ahalegindu dira Rikardi Arregi Diaz de Heredia, Joseba Sarrionandia, Castillo Suarez eta Kirmen Uribe liburu interesgarri honetan. Poesia zaleentzat harribitxi bat.



**Nola hustu nuen gurasoen etxea**  
Lydia Flem  
Alberdania

Gutako edonor aurkituko da noizbait ataka gogor honen aurrean: Gurasoak galtzea. Izan garen edo, halabeharrez, noizbait izango garen umezurtz guztioi eskainia da eleberrin baten moduan irakurri daitekeen liburu lagungarri hau.

[kirola]

## Fadura Igeriketa Taldea

Taldeak **25 urte** beteko ditu aurten eta **100 bat igerilarik** dihardute bertan



Entrenatzera zihoazela harrapatu genituen taldeko lagunak

**Udako** azken eguzki izpiak itzaltzen dabil-tzan honetan itsasoko uretan, erreka garden urrietako putzuetan, igerilekuetan... emandako bainuak fresko dauzkagu gogoan. Alabaina, uger egitea ez da udaren ondarea bakarrik, eta gugandik hurbil urte osoan igerian egiteko aukera badago, eta horretan dihardutenak ere bai, hala nola, Getxoko Fadura Igeriketa Taldekoak. 25 urte daroaz igerian eta honezkero ez dira itoko.

Ehun bat igerilarik osatzen dute taldea, hamabi bat andrazko baino ez. *“Aurten gainera, zoritxarrez, gutxiago izan daitezke iaz pare batek uztea erabaki zuten eta”*, aitortu digu Jose Felix Rasdem presidentea. Eskolakoetatik hasi eta beteranoen mailara arte dabilta igerilariak Faduran. Bestalde, 1.986tik Water-polo taldea ere badauka, *“35 igerilarik eratutako talde bi dauzkagu, eta orain txikien talde bat sortzeko ahalegintetan gabilta, baina saioak egiteko ordutegiak-eta arazoak dauzkagu”*.

Zilarrezko etzeiak ospatzeko ekitaldiren bat prestatzeko asmotan dabilzala azaldu du Rasdemek: *“Urtean txapelketa bat antolatzen ahalgintzen gara; Euskadiko txapelketa Fadurara ekartzea gustatuko litzauguke, ia aurten posible den”*. Arazoa urterokoa ei da, *“entrenamenduetarako-eta uzten dizkiguten leku eta ordutegiak; hala ere, orain udalgaz batzartuko gara, ia konponbidea lortzen dugun”*.

### Harrobia distiratsu

Denboraldi berriari begira itxaropentsu agertu dira Fadurakoak: *“Iaz Mikel Bildosola A finalean sartu zen 16 igerilari onenen artean, guretzat emaitza benetan ederra da; gainera, errelebo-taldea ere ondo ibili zen (Bildosola anaiak, Beñat Elorriaga eta Ibon Arregi), baita Adnan Mustafic (Bosnia-Gorliz) eta Jon Bacigalupe ere”*. Harrobiko bitxi legez Itxar Tagila, Epson Conde eta Oscar Rigueira aipatu dituzte arduradunek. <sup>m</sup>

BISITATU GURE DENDA!

MOROTXO

KANTXA  
KIROL MODA



**350** M<sup>2</sup>


KIROLERAKO GUZTIA!!

**URIBE KOSTAKO  
KIROL DENDA**

TORRENE 4, ALGORTAKO AZOKA  
48990 ALGORTA / TF. 94 491 18 82

ETXETIKO ELEKTROTRESNEN KONPON-  
SERVITEC

**Lacofris, s.l.**



• MARKA GUZTIAK  
• 24 ORDUTAN ERANTZU-  
NA  
• 3 HILABETEKO GARAN-  
TIA  
• 25 URTEZ ZURE ZERBIT-  
TU

& 94 430 52 00 Kasune, 18 - ALGORTA

BEROGAILU ETA ITURGINTZA

T: 430  
**HIRURAK**

Sarikobaso 15

**Carlos Beltran** > Bilboko World Series lasterketako zuzendaria

## “Ulertzekoa da kalteren bat jasan dutenek World Serieakaz bat ez egitea”



“Nik biziro maite ditut lasterketak, baina harresi bat paratuko balidate ate aurrean, hasarratu egingo nintzateke”

**Carlos Beltrán Torrelavegakoa da jatorriz, baina 32 urte daroaz Algortan. Oso gaztetatik dago autolasterketen munduari lotuta; Espainiako Automobilismo Federazioko presidenteordea ere izan da, iazko abendura arte. Uztailean, Bilboko World Series lasterketaren zuzendaria izan zen. Atsegin handiz bereganatu zuen erronka, izan ere, pasioa dario autoez berba egitean. Guk geuk ere igarri egin genion.**

—Bilboko World Series direlakoan zuzendaria izan zara...

—Bai, eta aurretik, Espainiako 1-Formula Sari Nagusikoa ere bai, hamabi urtez oker ez banago.

—Lasterketa horren balorazio asko entzun eta irakurri dugu, ez denak berdinak. Zelan atera ziren gauzak, zure ustez, Bilbon?

—Uff! Gatxa da horri erantzutea. Pentsatu Sanferminak antolatzen ditugula New Yorken; denak egongo lirateko oso harrিতuta hain gauza desberdina egitearren. Horixe da

Bilbon jazo dena. Hemen ez zegoen inongo eskarmenturik halakoak antolatzen, eta bizi-pena bitxia izan da; gauza asko egiten ikasi dugu, ezerezetik sortu dugu dena. Frogatu egin da lasterketa egin daitekeela borondatea egonez gero, ipini beharrekoa ipiniz gero. Eta ez nago diruaz bakarrik berbetan, e?

—Baina ez da erraza izan, ezta?

—Ez da berdina Montmelon 1-Formula lasterketa bat antolatzea -non errepidea emoten dizuten, segurtasun-neurriak ere bai...- edo Bilbon. Hemen, lehenengo beharra errep-

dea sortzea izan da, zelanbait esateko. Eta emoitza, nire ustez, oso ona izan da, bertan parte hartu dugunontzat batez ere. Bartzuetan apur bat etsita egon gara, baina etsipena gainditu ahal izan dugunean, gauzak oso ondo ateratzea lortu dugu.

—Zergatik etsipena?

—Ni oso perfektiozalea naizelako, eta auto lasterketak antolatzeke ohiturarik ez dagoenean, gatxa da perfektioa lortzea. Gainera, beste kontutxo batzuk egon ziren, zirkuitua hiribarrukoa izatearen ondoriozkoak.

### «Pentsatu Sanferminak antolatzen ditugula New Yorken; horixe da Bilbon jazo dena»

—Erraza izan zen Bilbon ibilbidea topatzea?

—Hara, niri eginda emon zidaten. Beste norbaiti bururatu zitzaion, eta egia esan oso ibilbide ederra da. Pare bat aldaketa txiker baino ez ziren egin behar izan.

—Ika-mika iturri galanta ere izan dira World Serieak. Zer iritzi daukazu?

—Zorionez, lasterketa ondoren Bilbotik ihes egin dut, eta zorionez diot oporretan egon naizelako, ez beste edozergatik. Ikamidak? Normala da. Nik biziro maite ditut lasterketak, baina harresi bat paratuko balidate ate aurrean, hasarratu egingo nintzateke, edonor bezala. Ulertzekoa da kalteren bat jasan dutenak ekimenagaz guztiz bat ez etortzea, zelanbait esatearren. Horren ordez lortzen den errentagarritasuna? Hara, hiritar arruntak ez du inoiz errentagarritasunik ateratzen lasterketa batetik. Etxe alboan ipintzen diote eta hasarratu egiten da, lasterketak gustuko edukita ere. Erabaki behar dena zera da: merezi du Bilbon hasarre dabilzianak konbentzitzea, hain hasarre egon ez daitezen eta lasterketa egiten segitu ahal izatea? Kinka horretan gagoz. m

**Esakere** > “Orratza, bat bakarria daukanari galtzen zaio”



Irudia: Gorka Vazquez

Gaur egun Murphy-n lege esaten dako, eta hainbat gauza eta pentsamentu lez, emoten dau iparreko amerikar inbentzio dala, baia honek esakeratxuk erakusten dau lez, aspaldirik pasaten daku, bai irudiko txiro gixajori eta bai gutariko edozeini, momenturik txarrenan falta dakule gehien behar dogun jenero: momentu baten zer behar, hatxe faltako daku. Atxiñeko lege da hori.

Esakera hau G. Garatek baturiko da eta beran “Atsotitzak” bilduman topako dozue

Gure **berbakere64**

## BERBA JATOR BATZUK (XV)

Berbakere 62n mailegu batzuk, hau da, erderatik harturiko berba batzuk, ikusten hasi gintzezen, gure euskeran aspalditik eta modu jatorran erabilten direzenak. Berbakere honetan aurrera egingo dogu horrek maileguk ikusten.

Testua: **Xabi Bilbao**

• **antoju:** (iz.) Atzerantza botaten dauden, ‘nazka’ emoten dauden, gauza eta egoeran ganera esaten da.

—Kendüzuz zapátak máhainen gánetik, antoju émoten dau eta.

• **auménta:** (ad.) ‘aipatu’ edo ‘aitetu’ esateko erabilten da.

—Berágaz egon naz bérbatan baia auménta bere eztaust iñ ze asmo dekon.

Berbakere 62n aitetu gendun ‘goberna’ lez, eta erderako –ar beste aditzek lez (pensar, preparar, presentar, cantar,...) –tu barik erabilten da gure euskeran: *pentsa dot, presenta daust, prepara naz, kanta daude...*

• **eleméntu:** (iz.) Holan geitzen dako zeozetan berezi dan edo nabarmenduten dan pertsonari. Gehienatan kualidade txarra adierazoteko erabilten da:

—Lagúnekaz afari bet hemen etxen? Hórrek eleméntuk pentsa bérez hona sártze!

Baia positibo bere ixen leite:

—Eztaude edozein ekarri berbaldik émoteko: eleméntu itzélak kontráta dauz Kultur Etxek!

• **enbrazu:** (iz.) Egin ‘iñ’ aditzegaz batera erabilten da kasik beti, ‘traba’ edo ‘oztopo’ egite adierazoteko.

—Mogídu ingot (égingo dot) automóbille ez daien enbrazurik iñ.

—Onéaz beróaz enbrazú iten dau danak.

• **ernéga:** (ad.) lasaitasune galdu edo hasarretu adierazoteko erabilten da.

—Ernégata dabil aspaldi honetan, esámiñek gánen dekoz eta.

—Kánpona yóteko agíndu dotset, ze ernéga érein (eragin) iten dotzo señeri.

I  
Iñaki  
Bitxitegia

OMEGA, LONGINES ETA TAGHEUER  
AGENTZIA OFIZIALA

Villamonte plaza T: 4302345  
Algorta

san inazio  
autoeskola  
1951n sortua

LCC - A1 - A - B - BTP  
baimenak

Telletxe, 13 / Tel. 94 460 00 45  
ALGORTA

Errotalde  
ileapaindegia

HARTU TXANDA TELEFONOZ!!

T: 460 38 90  
Errotalde 18A / ANDRA MARI, GETXO

GAVRKO  
GIZONENTZAKO  
MODA  
Telletxe 5  
ALGORTA  
T:

María

ILEAPAINDEGIA ETA EDERGINTZA

Alangobarri 10  
T: 4910821  
ALGORTA

HARTU TXANDA





gaizka escudero / basalboko

## Piku gozotuak eztia eta intxaurrekin

**O**raintxe hasi berri da pikuen sasoia. Paseo bat emanda ia nonahi topa daiteke udazkena iragartzen digun fruitu gozo hau. Piku oso egokia da postreak zein mermeladak prestatzeko.

Hasteko almibarra egingo dugu. Horretarako ipini ura su bizian irakiten, gero azukrea eta brandya gehitu. Eduki hau guztia su ezian ordu laurden edo, salda apur bat loditu arte. Ondoren pikuak bota eta bost minutuz sutan eduki. Postre hau aurkezteko, ipini plateran pikuak eta alboan intxaurren mamiak. Gaietik ezti apur bat bota eta kitto. Bestetik, gogoratu piku gozotu hauek, ontzietan gordeta ondo mantentzen direla. <sup>m</sup>

### osagaiak (bi lagunentzat)

dozena bat piku • litro erdi ur • 250 gramo azukre • basobete brandy



itsaso arana / jolastokikoa

## Tenpranillo mahats dotorea

**M**ahatsa, ardao: banatu ezinezko bikotea. Zer nolako mahatsa halako ardao. Ikasturte berri honetan, eta UKren zenbaki bakoitzean, mahats mota garrantzitsuenen gainean azalpenak emango ditut aiez ale.

Eta hasteko, inongo zalantza barik, hain gurea den *tempranilloa* aukeratu dut. Mahats noblea dela esaten eta leku askotan lantzen den arren, Errioxan inon baino hobeto hazten da. Lekuen arabera ere izen desberdinak hartzen ditu, esaterako, Ribera de Dueron *tinta fina*, Mantxan *cencibel*... Oso mahats fina da, aromatikoa eta kalitate handiko ardaok ematen dituena. Zaporetsua, afrutatua eta errubi kolore ikusgarri duna. Baina bere ezaugarriak azpimagarriena ondo zahartzeko daukan ahalmena da. Atsegin, dotorea da. Zinemarekin konparazioa egingo bagenu, *tempranilloa* Katharine Hepburn litzateke eta ez Marilyn Monroe. <sup>m</sup>



## Txozna jatetxea Urdulizen ederto jateko



Eskuinean Begoña Basañez, alboan Irupe eta Pedro Mari bere seme-alabak

**Urdulizko** eliza alboko landan bada 60 urtetik gora dituen taberna bat. Txozna izena du ordutik eta aintzina zahagiz betetako taberna zaharra zen. Orain dela 24 urte berriz, Begoña Basañezek hartu zuen Txozna eta hantxe paratu zuen jatetxea senarrarekin batera. Negozio familiarra da beraz, eta han egiten dute behar senar-emazteak eta seme-alabek.

Sukaldean kozinatzen Begoña bera eta Irupe alaba ibiltzen dira. Begoñak euskal sukaldaritzako betiko platerak ederto egiten ditu: makailoa, txipiroiak, Urdulizen tradizio handikoa den *rabua*... Hala ere, txuletoia izaten da Txoznan bezeroek gehien estimatzen dutena. Baina, esan bezala Irupe alaba ere ibiltzen da sukalde-

an, eta ama tradizioa bada, alaba berrikuntza da. Izan ere, ia astero asmatzen du plater berriren bat Irunek. Adibide batzuk: crepeak, labean gratinatutako arrozaz beteak tomate saltsaren gainean; azalore eta langostino pudina, espinaka saltsarekin; milorriak, ilar kremaz beteak gaztai saltsa gainean... Arrakasta handia daukate Irueren asmakizunek eta horregatik Txoznara bere plater berrien bila lagun asko joaten dira.

Eguneko menua 8,20 eurotan daukate eta asteburuetako berezia 15 kostatzen da. Jakina, batez ere aste-akabuetan, komenigarria izaten da txanda eskatzea. <sup>m</sup>

### TXOZNA JATETXEA

Torrebarri 3, landa - Urduliz  
T.: 94 676 34 71

**G** gOZOLABEA  
galdaretxe  
• Maidagan, 35 GETXO Tel. 94 491 11 25  
• Mayor, 17 AREETA Tel. 94 464 77 29  
• Sabino Arana, 67 LEIOA Tel. 94 464 40 58  
• Telletxe, 11 ALGORTA Tel. 94 460 32 14  
• Sabino Arana, 9 SOPELA Tel. 94 676 11 01

### OSABIDE HORTZ KLINIKA Arantza Etxebarria

- Odontologia orokor-  
ma
- Ortodontzia
- Periodontzia

Bigabarri 27, behe eskuina  
ALGORTA  
94 94 430 76 96

## Asador Goieztzi



- Zabalik egunero
- Eguneroko menuak
- Enpresa menuak
- Menuak norberaren gustura
  - Egunero karta berezia
  - Gauetz dastatzeko menua astelehenetik- ostegunera
  - Jaun hartze bazkariak zure gustura prestatzen ditugu.

Aretxondo 14  
Algortako Portu Zaharra / Getxo  
Erreserbak: 94 491 25 93

### TXIKI-AUNDI KAFETEGIA ezagutzen al duzu?

herriko pintxorik  
onenak ditugu  
etorri eta probatu!!

Amezti, 10 / T: 94 460 57 57 - ALGORTA

### eleizalde taberna eguneko menua

Kresaltxu 13  
T: 94 602 14 33 - ERROMO-GETXO

### Zurikaldai

JOKIN GARATE BAYO Neguriko Etorbidea 9  
T: 491 14 87  
48990 NEGURI

KIMETZ GARATE AZURMENDI Aingeruaren etorb. 4B  
(sarrera, Jata Mendia) T: 460 01 87  
48990 GETXO

**Taberna Berri**  
Sarrikobaso 4 -ALGORTA  
Tf.: 944 306 493

**Arasa**  
Sukalde eta Komunetarako Ekipamendu Osoa  
Barnekaldeen zaharberitzeak eta dekorazioa

Sarrikobaso, 44 • 48990 Algorta  
Tel/Fax: 94 430 11 91



**prentsa • aldizkariak**  
GETXOKO KIROL PORTUA  
Arriluze z/g • Tel.& Fax: 94 491 53 21  
ALGORTA • GETXO

**BATIZ KRISTALDEGIA**



- BIDRIERAK
- GRABATUAK AREA TEKNIKAREKIN
- IZPILU ERRALDOIAK
- INSTALAZIO OROKORRAK
- FUSIN

Illeta z/g (Sarrikobasoerikin bat)  
T:94 430 69 42 /ALGORTA

**VIEJO**



kopak eta giro jatorra

Alangobarri, 4 Tel. 94 460 30 03  
ALGORTA

Zure publizitatea hemen  
Zure publizitatea hemen  
Zure publizitatea hemen

94 491 13 37

**GOIZEAN**



"Gozoki eta prentsa, gutxi denik ez  
Prentsa - Fruitu lehorrak - Aldizkariak - Lixarrieriak

Orduña Mendatea 1      Telletxe 13  
T: 430 22 13              T: 460 02 88  
GETXO                      ALGORTA

**OSABIDE HORTZ KLINIKA**  
Arantza Etxebarria

- Odontologia orokor- ma
- Ortodontzia
- Periodontzia



Bidebarri 27, behea eskua  
ALGORTA  
94 94 430 76 96

[horoskopoa]

<p><b>URA</b> t</p>  <p><b>(Abenduak 21 urtarrilak 19)</b> Mosu eskale izan zara udan, baina pazientzia bako (jardun horretarako beharrezko ezaugarri). Eginahal asko egin dituzu, gutxiago eta irmoak izan balira... Emaizak agerian uzten du okertu zarela, edaten besterik ez dituzu busti musturrak!</p>	<p><b>OTSOA</b> t</p>  <p><b>(Urtarrilak 20 otsailak 18)</b> Egitekoak geroko uzten abila zara, hamaika hizkuntzatan ikasi duzu gainera "gero" esaten: later, après/ensuite, depois, después... baina amak aurre hartu dizu berriro eta berak ere badaki orain agintzen: now, maintenant, agora, ara...</p>	<p><b>ADARRA</b> t</p>  <p><b>(Otsailak 19 martxoak 20)</b> Arbolak milaka adartxo, eta bakoitzari jaramon egin ezean ez da haziko. Gitxi askok egiten dute handi bat. Zaindu daukazun apurrak, eta baliteke laster areagotzea. Areagotzen ez badira ere apur horiek edukitzen jarraituko duzu.</p>
<p><b>AITZURRA</b> t</p>  <p><b>(Martxoak 21 apirilak 19)</b> Aberats itxurak egiten ibili zara uda: kanpoan afaldu, oportetan hile osoa izen bako lur zoragarri horretan... Baina laster estaliko du grisak zerua, negu gorria dator. Txindurri txarra izan zara, eta malkoen-gatik ez du inork ordaintzen.</p>	<p><b>HOSTOA</b> t</p>  <p><b>(Apirilak 20 maiatzak 19)</b> Eta zer ondo sentitzen zara geroztik... Lehen zoragarri zena orain zorregarri ikusten duzu. Hartutako erabakiari gogor eta kementsu eusteak merezi izan du, nahiz eta bidetako harri guztietako bakoitzak belauak zauriz bete dizkizun.</p>	<p><b>EGUZKIA</b> t</p>  <p><b>(Maiatzak 20 ekainak 18)</b> Jai-zerrenda luzearen alboan maitalegaien zerrenda ere luzeagoa idatzi duzu uda honetan. Baina ez zara akordatu hartz-kobara zeugaz eroan gurako zenukeena konbentzitzeaz. Teknika antza aukeratu duzu. Lora garaira arte orain bakarrik hibematu beharko duzu.</p>
<p><b>GARIA</b> t</p>  <p><b>(Ekainak 19 uztailak 18)</b> Hamaika iraultzako Che izan zinen, bai, zinen. Bihotzean dagoen Franco horrek diktaduraren jarraitzaile sutsu bihurtu zaitu, edo zeure burua bihurtarazten utzi diozu? Maitasunak itsutzen gaituela dinoe, baina justizia itsua dela ere esaten dute.</p>	<p><b>LASTOA</b> t</p>  <p><b>(Uztailak 19 abuztuak 17)</b> Gerizpearen paxxadak, itsasoaren freskotasuna, izozkiei emandako mihazkada gogorak, afalorduko oilasko erreak, Eguzkiak lapurtutako gogoak, garagardoen aparra... Arkuaren soka zen uda hasieran zeure tripa, orain ostera arkuaren alde borobilduren antza hartu du.</p>	<p><b>IRATZEA</b> t</p>  <p><b>(Abuztuak 18 irailak 16)</b> Daborduko uda faltan botatzen hasi zarela! Lasai hurrengo sanferminetarako gutxiago gelditzen den legez, hurrengo uda hurbilago dago! Gomendioak ez du laguntzen, baina pentsa neguan ere berogailu barik ere bero-bero egoteko aukera badagoela.</p>
<p><b>META</b> t</p>  <p><b>(Irailak 17 urriak 16)</b> Udako jai bero haiekan arantzatutako gaizkarak kabiar onik emango duen ala ez? Galdeiozu neguari. Eta erantzunik jasotzen ez baduzu angula bila abiatu beharko duzu. Osterantzean, antxoetara ixaropentsu ixaron! Okela ere karu dago-eta!</p>	<p><b>HAZIA</b> t</p>  <p><b>(Urriak 17 azaroak 15)</b> Hasierako beroaldiak izoztu egiten dira maitasunari egurrak bota ezean. Zuen artekoa txingarretan dago, baina txingarrek ere laster galtzen du sutik daukana zaintzen, elikatzen ez bada. Zeuk erabaki izoztu ala erre egin gura baduzu!</p>	<p><b>NEGUA</b> t</p>  <p><b>(Azaroak 16 abenduak 20)</b> Urtarorik hotzenaren izena da zeurea, antzuenarena, geldienarena... Baina badakizu zu ez zarela negua! Lagunentzako udaberria da zure barrea! Alabaina, triste zabilzala... zoaz lagunentzako altxora eta eska jezaiezu besarkada bat, pozik emongo dizute!</p>

**mungia**  
OKINdegia



*Algortan badaukagu  
artisaunen ogia  
izen eta jatorriz  
da "ogi mungia".*

*Goizero lortzen dogu  
obispoen guleria  
probatu bada edo ez  
dan benetako egia.*

KASUNE 28 - T: 94 430 10 76  
ALGORTA



denborapasa

LUMA aldizkariaren eskutik

Ezker eskuin

1. Auzokoa, aldamenekoa. 2. Olariak. 3. Lapurdiko herria. Burdinbidea. 4. Hiri barruko errepideko tren. Ogi, hitz elkarketan. 5. Eite, itxura. Azkenekoa eta lehenengoa. Sufrea. 6. Ipar., zirikatua. 7. Oxigenoa. Metal estimatua. 8. Urrea. Zaldiak mugiarazteko interjekzioa. Bostehun. 9. Ebazpen. Gizon izena. 10. Intsektu nazkagarria. Gipuzkoako herria.

Goitik behera

1.Esku. Ukatzeko. 2. Gaueko argi. Batrazio ezaguna. 3. Zaraitzuko. 4. Nafarroako Bortzietako herria. Iridioa. 5. Berrogeita hamaika. Bigira, gaualdi. Iodoa. 6. Igarle. Mapa. 7. Laudorio, gorespen. 8. Momentu, lipar. Musika-partituren euskarria. 9. Ipotx, ñaño. Arabako alderdi politikoa. Musika nota. 10. Hutsa, desegokitasuna. Joaki da.

Soluzioak

V	A	I	V	I	R	H	O	Z
O	L	E	T	E	P	A	I	E
D	I	R	I	A	U	A	R	I
A	R	A	L	I	Z	O		
A	U	A	K	I	Z	I	K	
S	A	Z	E	T	E	G	I	
O	A	B	I	A	N	T	R	A
V	N	E	T	R	A	S	A	R
K	N	O	Z	I	G	O	L	A
V	U	G	I	L	A	Z	I	B

1									
2									
3									
4									
5									
6									
7									
8									
9									
10									

Taula honek hamaika beltzune ditu



ITSAS-BIDE TABERNAK ETA ANTONI CABEZA VUILERAK UTZITAKO ARGAZKIA

asmatu eta irabazi > ARGIA astekariaren opariak



Nor da?

- Manariko semea
- Gurpil biren gainean irabazi izan du ogia
- Zuzendari lanetan dabil gaur egun

> Aurrekoaren erantzuna: Igor Yebra  
> Irabazlea: **Ziortza Perez \***

\*deitu telefonoz goizez: 94 491 13 37

Bidalari erantzuna eta zure izen-deiturak, asmatzen duzuenon artean bi lagunentzako menu berezia zozketatuko dugu:

UK Uribe Kostako Aldizkaria. 171 posta kutxa 48991 Getxo  
uk@aldizkaria.biz / faxa: 94 491 58 31

Argia astekariaren hiru hilabeteko harpidetza doan



Freexkue liburua

www.argia.com

Bittor Egurrola

Algortako arraunlariak, 1919

1919an traineru estropadak egin ziren Areetan eta ibilbidea Maritimoa eta Algorta bitartean zegoen. Goiko argazkia Areetako kaian bertan aterata dago eta agertzen direnak Algortako San Nikolas de Bari trainerua osatzen zuten lagunak dituzue. Arraunlari hauek 1919ko irailaren 29an egin zen estropada horretan hartu zuten parte.

Itxuragatik besterik pentsa daitekeen arren, 19-27 urte artekoak ziren denak garai hartan. Estropada horretako lehenengo hiru sailkatuak hauexek izan ziren: Santurtzi (27 min. 42 seg.), Zierbena (27 min. 45 seg.) eta Hondarribia (28 min. 20 seg.).

Zutunik: Manuel Aresti, Domingo Gezuraga Patakatre, Segundo Gutierrez, Martin P. Telletxea (patroia), Emilio Cos (laguntzailea), Jose Basterretxea, Juan Jose Martinez, Moises Larrea, Jose Bretos, Serafin Galin, Enrique Franco Paten.

Lurrean: Manuel Franco, Jose Maria Kortazar Cartagena, Manuel Landa, Victor Araolaza Vitorcuello, Miguel Aresti Pinpinito, Gregorio Zelaia.

cianoplan Reprografia global printers

Vila de Plentzia 6. zbk  
Antigua Golf - Getxo  
Tlf. 944 649 067  
944 648 691  
http://www.cianoplan.es

- Imprimatze eta plano kopiak
- Kartelak kolorez eta z/b
- Digitalizazio eta bektorizazio, automatikoa eta lagundua
- Fotokopiak kolorez eta z/b
- Era desberdinetako koadernaketak
- Plastifikazioak
- Cd eta DVD grabaketak eta imprimaketak
- ermarkaketak



[aitormenak]

**KAITIN ALLENDE** > Euskadi Irratiko esataria

## “Marmota bihurtu nau lanak”

Testua: **Estibalitz Ezkerra**



**Defini ezazu zeure burua berba bitan?** Berriketaria eta ipurdantzaria.  
**Zein animalia gaz zatoz bat?** Pottokarekin.  
**Zein liburu gustatuko litzaizuke idaztea?** Nik idatzi baino gehiago, nebak idatzitako olerki guztiak liburu batean kaleratu nahiko nituzke.  
**Historiako zein pertsonaia miresten duzu gehien?** Umore oneko pertsonak miresten ditut, besterik gabe, sekulako meritua daukatelako.  
**Zure jakirik gogokoena.** Gazta.  
**Aitor dezakezun bizio bat?** Erretzea.  
**Oporretara joateko lekurik aproposena.** Hondartza duen edozein toki izan daiteke aproposa.  
**Zer hutsegite ez duzu sekula barkatzen?** Gezurrak.  
**Ezin zaitezke bizi...** Baserrira joan gabe.  
**Zer janzen duzu lo egiteko?** Kamisioia edo ezer ere ez.  
**Zer gordetzen duzu sakeletan?** Kleenex-ak (barreak). Beti ibiltzen naiz mukiekin gora eta behera.  
**Inoiz erosi duzun gauzarik bitxiena.** Holandatik ekarritako “euri makila”.  
**Zer berri gustatuko litzaizuke entzutea albistegi batean?** Euskal Herrian bakean bizi garela.  
**Ohitura txarren bat...** Marmota bat izatea, baina lanak horretara bultzatzen nauenez...  
**...Eta sineskeriaren bat.** Zer edo zer dago hortik, horretan sinesten dut.  
**Zertan gustatuko litzaizuke haragitzea?** Horrenbeste lo egiten dudanez, akaso koala batean.  
**Zure azken erokeria?** Egindako azken gaupasa ez bada...  
**Hainbesterako izan zen ala?** Daukadan adinarekin *erretiroan* pentsatzen hasi beharko nuke. m

**LABURREAN**— Irratirako bizi da Kaitin Allende. Natural-natural somatzen zaio mikrofonoaren atzean, aparailua eta bera izaki bakarra osatuko balute bezala. Berak dio horixe dela ondoen ezagutzen duen hedabidea, gazterik hasi baitzen bertan lanean. Arrasateko eta Laudioko irratiaren eman zituen lehen urratsak, eta gerora, EHUko Kazetaritza fakultatearen bitartez, Euskadi Irratian praktikak egiteko aukera sortu zitzaion. Eta orduz geroztik hantxe jarraitzen du, ez bekario gisa jakina, baizik eta kazetari trebe bati dagozkion baldintzetan. Hainbat saiotatik igaro ostean, gaur egun “Ipurtagia”, naturaz gaindiko fenomenoak, kriminologia, sexua eta beste hainbat gai bitxi jorratzen dituen programa gidatzen du gauero. Gauez lan egitearena nola eramaten den, horri aurre egiteko trikimailurik ote duen galdetu diogu. “Goizez lo eginez gaintzen da (barreak). Txipa aldatu beharra dago, bestela ezinezkoa da”. Baina onar dezagun ez duela batere graziaz besteak parrandan ikustea batek lan egin behar duenean. “Hori ostiraletan bakarrik gertatzen zait, jende guztia parrandara doa, eta ni ordu biak arte lanean”. Dena den, beti dago galdutako denbora berreskuratzeko aukera, eta parranda on batek gaintzi ditzake galdutako guztiak... ezta Kaitin?

# GETXOKO UDAL EUSKALTEGIA

CURSO 2005 - 2006 IKASTURTEA

MATRIKULA EPEA: irailaren 27ra arte / MATRÍCULA ABIERTA: hasta el 27 de septiembre

Lope de Vega, 12 · 48930 - ROMO  
Tfnoak: 94 464 62 99 / 94 464 65 02  
e-mail: euskaltegi@getxo.net

**HOGEI URTE, HAMAIIKA URRATS!**  
**20 .urteurrena anibersario**

maila guztiak todos los niveles

aurrematricula zabalik!!  
¡¡prematrícula abierta!!

galdetu euskaltegian > %85eko ASISTENTZIAREKIN, DOAN!  
pregunta en el euskaltegi > ¡CON EL 85% DE ASISTENCIA, GRATIS! HABEREN dirulaguntzaz

VISA

BBK

# titanioa



**BBK Visa Titanioa.**  
Behar duzunerako, eta nahi duzun bezala ordainduko duzu. Uda honetan, gainera, **%3ko deskontua** izango duzu, gasolindegi, bidai agentzi eta autoen alokairuko etxe guztietan.